

IKASKUNTZA ZERBITZUA

INKLUSIOAREN ALDE KOOPERATUZ

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: De La Serna Martinez de Alegria, Jorge

ZUZENDARIA: López Vélez, Ana Luisa

Vitoria-Gasteiz, 2020ko Ekaina

AURKIBIDEA

| | |
|-------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| Laburpena..... | 3. or |
| Resumen..... | 4. or |
| Abstract..... | 5. or |
| SARRERA..... | 6. or |
| JUSTIFIKAZIOA..... | 6. or |
| HELBURUAK..... | 7. or |
| 1. MARKO TEORIKOA..... | 8. or |
| 1.1 IKASKUNTZA-ZERBITZUA..... | 8. or |
| 1.1.1. Ikaskuntza-zerbitzua: zer da?..... | 8. or |
| 1.1.2. Ikaskuntza-zerbitzuaren etapak..... | 10. or |
| 1.1.3. Ikuspuntu pedagogikoa..... | 11. or |
| 1.1.4. Ikaskuntza-zerbitzuen onurak..... | 12. or |
| 1.1.5. Zergatik sustatu behar ditugu ikaskuntza-zerbitzuaren proiektuak?..... | 13. or |
| 1.2. ESKOLA INKLUSIBOA..... | 14. or |
| 1.2.1. Hezkuntza inklusiboa: kontzeptu gisa..... | 14. or |
| 1.2.2. Hezkuntza inklusiboaren ezaugarriak..... | 16. or |
| 1.2.3. Hezkuntza integratzailetik haratago..... | 17. or |
| 1.2.4. Jolas kooperatiboak..... | 20. or |
| 2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA..... | 22. or |
| 2.1. Ikastetxearen testuingurua..... | 22. or |
| 2.2. Parte hartzaileak..... | 23. or |
| 2.3. Zerbitzuaren helburuak..... | 24. or |
| 2.4. Ezaugarri pedagogikoak..... | 24. or |
| 2.5. Planifikazioa..... | 25. or |
| 2.6. Ekintzak..... | 27. or |
| 2.7. Dokumentazioa..... | 28. or |
| 2.8. Emitzen analisia..... | 29. or |
| 3. ONDORIOAK..... | 42. or |
| 3.1. EZTABAIDA..... | 42. or |
| 3.2. BALORAZIOA..... | 44. or |
| 3.3. MUGAK ETA BERRIKUNTZAK..... | 45. or |
| 4. BIBLIOGRAFIA..... | 47. or |
| 5. ERANSKINA..... | 49. or |
| I. Eranskina. Proposamenaren plangintza..... | 49. or |
| II. Eranskina. Kronograma. Ekintzen egutegia..... | 61. or |
| III. Eranskina. Ikastetxearen ebaluazioa..... | 62. or |
| IV. Eranskina. Ikasleen ebaluazioak..... | 65. or |

LABURPENA

Ikaskuntza-zerbitzu inklusiboa, hezkuntza alorrean fokoa jarriz, ikas talde baten ikaskuntza eta komunitate horren zerbitzuak tartekatzen dituen hezkuntza proposamena da. Lan honen bitartez argia ikusten duen proiektu honek, ikasleen partehartzea eta jarrera inklusiboak bultzatzen ditu, balioen aldeko hezkuntza sustatuz. Hortaz, hurrengo orrialdeetan zehar, ikaskuntza-zerbitzuan oinarritutako proiektu baten ildoak eta xedek garatzen dira.

Proiektuak Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea du sorburu eta behin proiektuaren oinarriak finkatuta daudela hezkuntza mundura irekitzen ditu ateak, hain zuzen, Gasteizko ikastola batera; helburua argia izanik: ikas talde bat hezitzea, jarrera inklusiboak bermatzen dituzten jarduera kooperatiboetan, etorkizunean komunitate giza jardun dezaten.

Orokorrean, ikaskuntza-zerbitzu honi esker emandako aurrera pausua txikia izan arren, errealitatearen aurrean jardutea eta erabakiak hartzea, honetan eragin positiboak sortzen dituzten aldaketak egiaztatzeko eta frogatzeko aukera ematen du, errealitate inklusiboan aurrera pausuak emanez.

Hitz gakoak: Ikaskuntza-zerbitzua, hezkuntza inklusiboa, jolas-kooperatiboak, Lehen Hezkuntza.

RESUMEN

El aprendizaje-servicio inclusivo, enfocado hacia el ámbito educativo, es una propuesta educativa que combina el aprendizaje de un grupo de estudiantes con los servicios ofrecidos a la comunidad. A través de este proyecto, se fomenta la participación y las actitudes inclusivas del alumnado, impulsando la educación en valores. Así, a lo largo de las siguientes páginas se desarrollan las líneas a seguir y metas de un proyecto basado en el aprendizaje-servicio (ApS).

El proyecto tiene su origen en la Facultad de Educación y Deporte de la Universidad del País Vasco y, una vez fijadas las bases del proyecto, abre sus puertas al mundo educativo, concretamente a una escuela situada en Vitoria-Gasteiz. Tiene un claro objetivo: formar un grupo de aprendizaje en el cual las actividades cooperativas llevadas a cabo garanticen actitudes inclusivas para que en el futuro este alumnado actúe como comunidad humana.

En general, a pesar del escaso avance dado a través de este aprendizaje-servicio en concreto, la actuación ante la realidad y la toma de decisiones permite comprobar y demostrar los posibles cambios que generan impactos positivos en la misma, dando pasos hacia una realidad inclusiva.

Palabras clave: Aprendizaje-servicio (ApS), educación inclusiva, juegos cooperativos, Educación Primaria.

ABSTRACT

The inclusive service-learning, focused on the educational environment, is an educational proposal that combines the learning of a group of students with the services offered to the community. Through this project, participation and inclusive attitudes of students are encouraged, promoting education in values. Thus, throughout the following pages, the lines to be followed and the goals of a project based on service-learning approaches are developed.

The project has its origin in the Faculty of Education and Sport of the University of the Basque Country and, once the bases of the project have been established, it opens its doors to the educational world, specifically to one school situated in Vitoria-Gasteiz. It's clear purpose is to form a learning group in which the cooperative activities carried out will guarantee inclusive attitudes so that in the future these students will act as a human community.

In general, in spite of the scarce progress made by this service-learning project, acting in the real world and decision making allows us to verify and demonstrate the possible changes that generate positive impacts on it, taking steps towards an inclusive reality.

Keywords: Service-learning, inclusive education, cooperative games, Primary Education.

SARRERA

JUSTIFIKAZIOA

Hezkuntzaren helburua mundua aldatzeko gai diren pertsonak, herritarrak eta biharko egunean beren arazoei aurre egiten dakiten pertsonak prestatzea da. Ikaskuntza-zerbitzu proiektuak komunitateari zerbitzu bat ematearekin batera ikasteko aukerak ematean datza. Helburu soziala duten hezkuntza proiektuak dira hezkuntza arrakastarekin bat egiten duten proiekturik sendoenak, eta era berean, gizarte konpromisoa bultzatzen dute. Hezkuntzan zehar aurrera doazen haurrak etorkizuna dira, inguruko ingurunea eraldatzeko gai izan behar direnak, gizarte demokratiko eta inklusibo baten bila doazenak.

Ikaskuntza-zerbitzuan oinarritutako proiektu bat egitea ikaskuntza eraginkorra egitea da, haurrek egiten dutenari zentzua aurkitzen diotelako. Hauei esker, komunitateak, auzoak, inguruneak eta ikastetxea bera indartzen dira. Horregatik, haurrek gizarte- eta komunikazio-trebetasunak, ekimen-gaitasuna, enpatia eta herritarren erantzukizuna bezalako balioak bereganatzeko aukerak eskainiko zaizkie.

Ez hori bakarrik, ikaskuntza-zerbitzuan aurrera eramaten den metodologia aktiboa da. Bertan, ikasleak protagonistak dira, eta gainera, bere proiektuaren ondorio positiboak aurreikusten eta bizitzen laguntzearen ondorioz ikasleen motibazioan lorpen handiak egiaztatzen dira. Azken finean, bizi garen errealitate digitalizatu eta gizatasunik gabeko gizarte honetan ikasleek gizarte-hezkuntzaranzko pausuak ematen dituzte, non pertsonen eta balioen garrantziaz ohartzen diren. Modu berean, ikasleak errealitatera itzultzen dira, inguratzen dien munduarekiko loturak ulertuz eta sorraraziz.

Beraz, aurreko esanak oinarri izanda, lan honek izan duen motibazio nagusietako bat, dudarik gabe, esperientzia berak ematen didan ikasteko aukera izan da. Ikaskuntza-zerbitzu inklusiboak besteentzat erabilgarriak diren tresnak edota proposamenak luzatzeko aukerak ematen ditu, nire kasuan, 8-10 urte bitarteko ikasleekin lan egiteak haientzat onuragarriak diren balioak adierazteaz gain ikasteko aukera aipagarriak eman dizkit; ikasle bakoitza altxor bat da eta horretaz konturatu behar gara.

Ikaskuntza zerbitzu inklusiboaren gaia aukeratzeko garaian ikasleengan sortzen dituen bestelako onurak kontuan izan ditut, eta batez ere, ikasleak zerbait erabilgarria egiten ari direla konturaraztea beste pizgarri bat izan da. Irakasleok funtsezko zeregina dugu ikasleen motibazioan, beraz, haientzat deigarriak eta interesgarriak diren jarduera berritzaileak proposatu behar dizkiegu, pozik senti daitezen.

Abiapuntua gure inguruan benetako premia bat identifikatzea da, horretaz jabetzea eta hura konpontzeko edo, gutxienez, hobetzeko konpromisoa hartzea. Metodologia honen aukerak direla eta, tresna egokia da talde batean aurkitutako desberdintasun pertsonalak edota kulturalak gutxitzeko, kooperazioan jarduten duten neska-mutilen kontzientzia soziala sustatzen baititu.

Hurrengo orrietan irakurri eta aztertuko duzuen lana ez da boluntario-lan hutsa, proiektu planifikatua eta ondo artikulatua baizik, etapa bakoitzean zenbait ikaskuntza jokoan jartzen dituen.

HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honek hurrengo helburuak aurkezten eta planteatzen ditu:

- Ikaskuntza zerbitzuaren eredu pedagogikoa deskribatzea eta inklusioa jorratzeko aurkezten dizkigun aukerak baloratzea eta praktikan jartzea.
- Graduan jasotako ezagutzak erabiltzea Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleekin ikaskuntza proiektu bat planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko.
- Ikasleak kooperazioan jarduteko trebetasunak bereganatzea eta kooperazioaren onurak ulertzea, haien ikaskuntzaren protagonista bihurtuz, elkarrekiko errespetuzko balioak partekatuz.
- Irakasle gisa, ikasleak motibatzen ikastea, konpromiso sozialari dagokionez.
- Esku hartzean izandako bizipenei esker ikaskuntza eta hausnarketa egoerak eskuratzeko, nire lanaren inguruko iritzia desberdinak jasoz, etorkizunean baliagarriak egingo zaizkidan trebetasunak eskuratzeko.

Behin lanaren helburuak zehazturik, jarraian, marko teorikoaren garapenari esker lanaren oinarriak finkatuko dira, egin beharreko koherentzia eta garapena emanaz. Aurrerago aurkeztuko den ikaskuntza zerbitzuari ateak irekitzen dizkieten erreferentzia teorikoak izango dira.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. IKASKUNTZA-ZERBITZUA

1.1.1. Ikaskuntza-zerbitzua: zer da?

Ikaskuntza-zerbitzua programa, filosofia eta pedagogia gisa defini daitekeen irakaskuntza ikaskuntza prozesua da. Askotan *collage* izeneko margolan batekin alderatu den termino bat da, besteak beste ezagunak diren elementu desberdinez osatutako produktuak direlako, eta gainera, hauek aztertzerakoan hausnarketa kritikorako eta hazkuntza pertsonalerako aukera ematen dute. Ikaskuntza-zerbitzua osotasunean aztertzerakoan, osagai desberdinez osatuta dagoela ikusten da, ezagunak diren osagaiak izan ohi dira, besteak beste: gizarteari zerbitzu boluntarioa, jakintzen, baloreen eta gaitasunen transmisioa eta hezkuntza komunitatea. Behin osagai batzuk jakinda ezagunak diren elementuak dira, baina ikaskuntza-zerbitzuan elementu guzti hauek elkarlanean jarriz sorkuntza berritzaile eta dinamiko batek argia ikusten du.

Programa honen helburu nagusia giza dimentsio anitzen – intelektualen, afektiboan eta praktikoan – lanketa koordinatu bat lortzea da, non ikasleek protagonismoa eskuratuz erantzukizun zibikoa eta soziala lantzen dute. Gainera, unibertsitateak gaur egungo hezkuntza komunitateari eskaintzen dion laguntza eta programa aldebiko onurak suertatzen ditu, bai ikastetxeari eta baita ikaskuntza-zerbitzua martxan jartzen duten ikasleei ere.

Erronka pedagogiko honen definizioan murgilduz, ikaskuntza-zerbitzuaren hiru ezaugarri nagusiak bereiz ditzakegu (Tapia, 2010):

- 1. Protagonismo aktiboa:** jardueraren protagonistak haurrak, nerabeak edo gazteak dira, baita helduak ere, hezkuntza talde formalak edo ez-formalak lagun dituztenak.
- 2. Zerbitzu solidarioa:** komunitate baten behar erreal eta sentituei erantzuteko. Jarduera zehatzak planifikatzen dira, protagonisten adinari eta gaitasunei egokituak eta mugatuak, eta komunitateko arazo espezifikoak konpontzen laguntzera bideratuak.
- 3. Jakintzak eskuratzeko planifikatutako ikasketak:** proiektuak esplizituki artikulatzen du curriculumeko edukien ikaskuntza.

Deskribatutako ezaugarriek aukera ugari ematen dituzte ikaskuntza-zerbitzuen proiektu esanguratsuak eta aberatsak diseinatzeko orduan, bai hezkuntza formaleko eremuetan, eta baita eremu ez-formaletan ere. Era berean, proiektu hauek bost alderdi komun

partekatzen dituzte: ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte-hartzea eta hausnarketa. Beraz, alderdi guzti hauek elkarlanean jarriz hasieran aipatutako collage itxurako proiektuak kolorea hartzen joango da eta hasieran ilunak izan zitekeen eremuak argitzen joango dira (Rubio, 2007).

1. Ikaskuntza

Ikaskuntza sistematizatua izan behar da eta eman nahi den zerbitzuarekin bat egin behar du, gainera, kasu honetan protagonistek prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren ikasiko dutenaren zehaztapen bat egin behar da. Ikasketek errealitatea ulertzen, beharrak diagnostikatzen, kalitatezko zerbitzu bat ematen, ekintza aztertzen eta etorkizunean beharrezkoak diren hobekuntzak plazaratzen laguntzen dute. Gainera, proiektu hauek hezkuntza curriculumarekin bat egiten duten eduki zein helburuekin lotzea ezinbestekoa da, ikasleen gaitasunak indartuta.

2. Zerbitzua

Zinezko zerbitzu bat eskaini behar da oinarri solidario bati helduz, non inguru hurbileko beharrei erantzuten zaie, hauei hobekuntza bat eskaintzeko helburuarekin. Ez hori bakarrik, zerbitzu hauek eragin formatzaile eta transformatzaile bat sortzen dute euren protagonistengan. Horregatik instituzio hezitzaileen eta sozialen arteko elkarlana martxan jartzea exijitzen da.

3. Proiektua

Ikaskuntza-zerbitzuan oinarritutako proiektu batean ezinbestekoa da nahitasun pedagogiko baten esku hartzea, non hezitzaile batek honen programazio eta ebaluazioa aurrera eramaten duen. Beraz, ikaskuntza ez da praktika samur batean geldituko, baizik eta, proiektu honek eskaintzen dituen esperientzia onuragarrietatik kalitatezko ondorio hezitzaileak lortuko dira, protagonisten balore, gaitasun zein bizipenak indarberrituta.

4. Parte-hartzea

Neska-mutilen parte-hartze aktiboan eta protagonismoan oinarritu behar dira ikaskuntza-zerbitzuaren esperientziak, eta, hartara, proposamen informatibo hutsak gaitzitu. Hori da ikaskuntzak eraikitzeko oinarria eta benetan esanguratsu bihurtzen dituen. Proiektuaren faseetan parte hartu behar dute protagonistek, premien detekzioetik hasi eta hobetzeko proposamenen diseinuekin bukatu. Protagonismoa adinaren, heldutasunaren eta gaitasunen araberakoa izango da, noski.

5. Hausnarketa

Ikaskuntza-zerbitzuen proiektuak behar bezala aurkeztu eta lantzen badira, parte-hartzaileek unean egiten ari dutenez eta haien onura sozialez kontzientzia hartuko dute. Halaber, ezinbestekoa da egindako prozesuari, landutako ikaskuntzei eta zerbitzuaren eraginari buruz gogoeta egitea. Gogoeta horrek aukera ematen du ikaskuntza berriak integratzeko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, eta, aldi berean, jarrera paternalistak gainditzen laguntzen du, protagonistek egiten duten zerbitzuarekin asko ikasten baitute.

1.1.2. Ikaskuntza-zerbitzuaren etapak

Ikaskuntza-zerbitzu bat aurrera eramateak, funtsean, edozein proiekturen garapen antzekoa du. Beraz, garapenak oinarritzko hiru multzo ditu:

1. Irudia

Ikaskuntza-zerbitzuen etapen garapena.



Oharra: Batlle, 2015, 7.or. Egileak euskaratuta.

Hezitzailearen ikuspuntutik, multzo horietako bakoitza honela defini dezakegu (Batlle, 2015):

- **Prestakuntza:** proiektua ikasleei aurkeztu aurretik hezitzaileak argi izan beharko lukeen aurretzeko prozesua.
- **Gauzatzea:** ikasgelako taldeak garatzen duen proiektua prestatu, gauzatu eta ixteko prozesua.
- **Ebaluazioa:** egindako proiektua eta hezitzaileak gauzatzen dituen hezkuntza- eta gizarte-emaitzak aztertze prozesua.

Hiru bloke logiko horiek etapatan bana daitezke:

1. Taula

Ikaskuntza-zerbitzuaren garapenean sortzen diren azpi-etapen sailkapena.

| | | |
|---------------------|---|----------------------------------|
| PRESTAKUNTZA | 1 | Ideiaaren zirriborroa |
| | 2 | Aliantzak ezartzea |
| | 3 | Proiektuaren plangintza |
| GAUZATZEA | 4 | Proiektua taldearekin prestatzea |
| | 5 | Proiektua gauzatzea |
| | 6 | Taldearekin proiektua ixtea |
| EBALUAZIOA | 7 | Funtzio anitzeko ebaluazioa |

Oharra: Batlle, 2015, 7.or. Egileak euskaratuta.

1.1.3. Ikuspuntu pedagogikoa

Ikaskuntza-zerbitzua programa eta filosofia gisa ulertzeaz eta definitzeaz gain, arlo pedagogikoak hartzen du garrantzi handiena. Pedagogia honetan ikasleek elkarlanean arituz esperientzia desberdinen jabe dira, eta esperientzia hauetan aurrera eramandako hausnarketa eta iritzi desberdinei esker ikaskuntza bat bereganatzen dute. Era berean, ikaskuntza horri esker gizartean dauden arazo desberdinei aurre egiteko erraminta gisa erabil dezakete, bakoitzak bere gaitasunak bermatuta.

Ikaskuntza-zerbitzuaren printzipioak jarraituz, zerbitzu hau esplorazio, ekintza eta gogoetan oinarritutako ikuskera pedagogiko batetik abiatzen da, non eskuratutako ezagutzei erabilpen asko eman nahi zaie, etorkizuneko gizartea hobetzeko helburuarekin. Gainera, pedagogia honek baloreetan oinarritutako hezkuntzarekin bat egiteaz gain, argi uzten du baloreak lantzeko ezinbestekoa dela arazo-egoeretatik hastea eta hauei aurre egitea esperientzia propioetatik. Ez hori bakarrik, herritartasunarekin bat egiten duen hezkuntzak parte hartze aktiboa, jarrera arduratsuak, kooperatiboak eta solidarioak errespetatu eta bermatu behar ditu. (Rubio, 2007).

Beraz, aurreko guztia laburbiltzeko eta pedagogia honen oinarriak nabarmentzeko, ikaskuntza-zerbitzuak hezkuntza-proiektu sozialak dira, non bertako irakasle zein ikasleek egunerokotasunerako erabilgarriak diren jakintzak eta gaitasunak eskuratzen dituzte. Bertan, ikasleen jakintza eta gaitasun anitz eta desberdinak altxor gisa ulertuak dira, hauei esker balore eta jarrera inklusiboen aldeko jarduerak proposatuta.

1.1.4. Ikaskuntza-zerbitzuen onurak

Ikaskuntza-zerbitzuek eskaintzen dituzten onurak anitzak dira eta gizarte-esparru desberdinekin bat egiten dute, hona hemen onura nabarmenenak (Rubio, 2007):

Ikaskuntza-zerbitzuak protagonistengan:

- Rol protagonista eta eraginkorra ematen die, bai ikastetxeetan eta baita gizartean ere.
- Ikastera motibatzen ditu, ikasketak bizipenezkoak, kritikoa eta esanguratsuak bihurtuta.

Ikaskuntza-zerbitzuak hezkuntza-komunitatean:

- Neska-mutilen garapen akademiko, zibiko, etiko, pertsonala, soziala eta profesionala bultzatzen ditu, ikasleen hezkuntza-errendimendua handituta.
- Hezkuntza-proposamenak eta metodologia tradizionalak gainditzen ditu.

Ikaskuntza-zerbitzuak komunitatean:

- Hezkuntza-erakundeen eta gizarte-erakundeen arteko sare-lana bultzatzen du.
- Lurraldea hezkuntza-ekintzen agertoki pedagogiko, protagonista eta hartzaile gisa izaten bultzatzen du.

Ikaskuntza-zerbitzuak gizarte-erakundetan:

- Gizarte-erakundeari eta honen xedeari ikusgarritasuna ematen die.
- Gizarteko beste eragile batzuekin batera modu koordinatu batean lan egiteko aukera ematen du, gizartea hobetzeko helburuarekin.
- Neskak eta mutilak etorkizunean elkartasun-kausekin konprometitzea du helburu.

Ikaskuntza-zerbitzuak esparru politikoan:

- Herritartasuna eta herritarren erantzukizuna bermatzen du.
- Hezkuntza- zein gizarte-beharrei erantzuteko ahaleginak egiten ditu, eta horretarako eskura dituen baliabide guztiak aprobetxatzen ditu.

1.1.5. Zergatik sustatu behar ditugu ikaskuntza-zerbitzuaren proiektuak?

Hezkuntzaren benetako arrakasta gizartea hobetzeko gai diren herritarrak hezitzean lortzen da, ez bakarrik haien curriculum pertsonala garatuz, baizik eta hortaz haratago aurrera pausoak emanez.

Bigarrenik, haurrak eta gazteak ez dira etorkizuneko herritarrak, gaur egun ingurunean aldaketak eragiteko gai dira dagoeneko. Espainian eskola-adinean dauden ia 4.500.000 haur eta gaztek mundu demokratikoago eta inklusibo bat egiten lagun dezakete, ikaskuntza-zerbitzuarekin bat eginez, adibidez: beren eskolatik hurbil dagoen parkea konpontzen, aiton-amonen bakardadea arintzen edo haur txikiei ipuinak kontatzen. Haurrek gizartea hobetzen laguntzeko eskubidea dute, mundu hau anaikorra eta bizigarriagoa bihurtzeko. Beraz, kasu honetan unibertsitateko ikasleen kasuan gauza bera gertatzen da, bertako ikasleek hezkuntza biziago eta aberatsago bat jasotzeko helburuarekin ikaskuntza-zerbitzuan oinarrituta ekintza esanguratsuak aurrera eramaten dira (Batlle, 2015).

Hurrengo azpi-puntu honetan ikaskuntza-zerbitzua praktikan jartzeko zergatiak aztertuko dira, eta horretarako hainbat eremu desberdin hartuko dira abiapuntu gisa: protagonistak, hezkuntza komunitatea, erakunde sozialak eta komunitatea.

2. Taula

Ikaskuntza-zerbitzuak lantzeko 10 arrazoi.

Ikaskuntza-zerbitzua lantzeko hamar hezkuntza- eta gizarte-arrazoi

1. Hezkuntzaren eta gizartearen arteko harremanak sendotzeko.
2. Alderdi kognitiboak ikaskuntzaren jarrera- eta moral-alderdiekin bat egiteko
3. Nerabeek hobeto ikas dezaten.
4. Haurrak eta gazteak herritar gisa sentiarazteko eta gizartearen parte garrantzi bat direla ulertzeko.
5. Gaur egungo praktika onuragarriak indartzeko eta ikastetxearen irudi soziala bermatzeko.
6. Irakasleen eta hezitzaileen inguruko iritzi sozialari aurre egiteko.
7. Herritarren praktika demokratikoa eta parte-hartzailea bultzatzeko.
8. Auzo eta herrietako gizarte-kohesioa handitzeko.

9. Boluntario lan inklusibo eta esanguratsuak gizartean sustatzeko.

10. Parte hartzaileen artean jarrera eta balore inklusiboak lantzeko, etorkizuneko gizartea berdintasunean murgilduz.

Oharra: Batlle, 2015, 5.or. Egileak euskaratuta.

Ikaskuntza-zerbitzuaren atalari amaiera emateko eta unibertsitateko ikasle gisa jardunez, zerbitzu inklusibo honi esker gizartean zein hezkuntza komunitatean garapen sozial, afektibo eta inklusibo bat emateko aukera izan dugu. Etorkizuneko irakasle gisa, metodologia honetan oinarrituta, betidanik bilatzen ari garen ikasleen protagonismoa lortu dugu eta gainerako haurrek gizartean bizitzeko ezinbestekoak diren jarrerak ikastearekin batera curriculumean ageri diren beste hainbat eduki edota atal ikasteko aukera izan dute, hori da, elkartasunean oinarritu diren egoera bizi izanda. Gainera, etorkizunera begira irakaskuntza konpetentzia propioak garatzeko aukera ezin hobe jasotzen dugu, non ikasleen jarrera, interes eta jakin-min desberdinekin aurkitzen garen eta hauei kalitatezko erantzun hezitzaile bat emateko aukerak garatzen ditugu.

Beraz, aurreko guztia oinarri izanik eta ikaskuntza-zerbitzuaren garrantzia indarrean jarriz, ezinbestekoa da kalitatezko hezkuntzarekin batera hezkuntza inklusiboaren apologia besarkatzea. Ikaskuntza-zerbitzuaren ezaugarri nagusien artean inklusioa eta ekitatea aurkitzen dira, hau da, inklusiorik eta ekilaterik gabe aurrera eramango den ikaskuntza-zerbitzuan oinarritutako proiektuek indarra eta eraginkortasuna galduko dute. Hori horrela izanik, hezkuntza inklusiboak ikaskuntza-zerbitzutik at ere egunerokotasunean agerraldi protagonista bat izan beharko luke, guztion arteko aukera berdintasunak bermatuta.

1.2. HEZKUNTZA INKLUSIBOA

1.2.1. Hezkuntza inklusiboa: kontzeptu gisa

80. hamarkadatik gaur egun arte mugimendu hezitzaile batek ateak ireki dizkio hezkuntza inklusiboari, integrazio hitzaren indarrak alde batera utzita. Hezitzaile, guraso eta ikasleek hezkuntza inklusiboaren aldeko aurrera pausuak ematen joan dira, eta batez ere, argi utzi dute heziketa berezia ez dela aparteko beste mundu batean kokatu eta landu behar. Beraz, urteetan eskuratutako indarren poderioz definizio anitz asko sortuz joan dira, baina Parra izeneko aditu batek erabaki zuen eskutik emanda lan egiten duten bi kontzeptuen definizioak zehaztea, hau da, hezkuntza eta inklusio hitzak definitzea. Alde batetik hezkuntza hitzak norberaren ezaguera eraikitzeari eta eratzeari egiten die erreferentzia, jarraibide kulturalak barneratzearekin batera, jakintzak

partekatuta. Eta bestetik, inklusioak banakoek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea eraginkorra bihurtzen du, aukera berdintasunak, oztopo hezitzaileen deuseztapenak eta parte hartzea begiztatuta (Parra, 2010).

Era berean, inklusio terminoa hezkuntzaren ikuspegitik aztertuz, guztiontzat hezkuntza-eskubidea eskuratzea da, aukera-berdintasuna, ikasteko oztopoen ezabapena eta testuinguru fisiko zein sozialetan partehartzea oinarri izanik. Inklusioaren kontzeptuak eskusioa jasan dezaketen ikasle kolektibo guztien eskubideen goraipamenetan du sorburu, eta horrela, gizartearen testuinguru desberdinetan erabateko parte-hartzea ziurtatzea du helburu; hau da, eskusioa jasaten duten pertsonen gainerako esperientzia berberak izateko aukerak zabaldu nahi zaizkie, kalitatezko hezkuntza ekitatibo baten bitartez. .

Aurreko azalpenarekin eta terminoen bereizketarekin, horiek argitzeko eta haien inplikazioa mugatzeko, esan daiteke “Hezkuntza inklusiboa hezkuntza orokorraren eta hezkuntza-erakundearen aldaketetan laburbil daiteke, aniztasunari bidezko eta kalitatezko erantzuna emateko gai izan daitezkeen...” (Parra, 2010, 77.or¹).

Gaur egun, eskolek eta irakasleek beren ikasleen aniztasunari aurre egin behar diote egunez egun, eta, horretarako, ikasleen testuinguruari eta ikasgelan egiten dituzten praktikei erantzungo dien ikuspegia behar dute, ikasleek aurkezten dituzten behar eta ezaugarrietara hobeto egokitzeko. Bestela, ikasle asko hezkuntza-bazterketako arriskuan egon daitezke, ez baitute baliabiderik ingurune bereizietan banakako arreta eskaintzeko. Egoera horri erantzunez, hezkuntza inklusiboaren helburu nagusietako bat da hezkuntza-erakundeek eta haien irakasleek ikasleen aniztasunari erantzuteko dituzten gaitasunak indartzea da. Era berean, irakasle-taldearen garapen profesionalari eta eskola-egituren eta haien politiken eraldaketari laguntzean, beste ikasle askori ere erantzuten zaie, orain arte beren hezkuntzan baztertuta egon baitira. Horren erakusgarri da ikasle askoren baztertze-esperientzia, bereziki neskena. Izan ere, ez dira nabarmentzen ez haien portaeragatik, ez errendimenduagatik, ez alderdi positiboagatik, ez negatiboagatik, eta, beraz, arreta gutxi eskaintzen zaien ikasle «normalak» «talde ikusezin» bihurtzen dira (Lopez Vélez, 2018, 23.or).


Bestalde, eskola inklusiboa hezkuntza-eskaintza ikasleen aniztasunera egokitzen duen eskola deritza, non ikasle guztien eskolaratzea lortzearekin batera haien parte hartzeko aukerak sustatzen dira. Hautzarotik abiatuta ikaskuntza eraginkor bat gauzatzeko,

¹ Egileak euskaratuta.

gizarte bidezkoago bat bultzatzeko balioko du, non desberdintasuna ez baita banaketarako elementu gisa interpretatzen, baizik eta identitate eta aberastasun gisa.

2.Irudia

Hezkuntza inklusiboaren garapena: beharrak komunitatetik datoz eta behar horien ondorioz sortutako gizarte-aldaketek hezkuntzako eta eskolako aldaketa berriak eragiten dituzte. Irudi honetan inklusioaren garapen eskematikoaren berri ematen da.



Oharra: Valcarce, 2011, 123.or. Egileak euskaratuta.

1.2.2. Hezkuntza inklusiboaren ezaugarriak

Ainscowek (2003), "inklusio" terminoaren inguruan ezjakintasuna egon arren, hezkuntza Inklusibo ororen funtsezko lau elementu identifikatu zituen. Hurrengoak dira inklusioaren funtsezko ezaugarriak:

- Inklusioa aniztasunari erantzuteko modurik egokiena eta eraginkorrena etengabe bilatu behar duen **prozesua** da. Ikasleei desberdintasunarekin bizitzen eta hartatik ikasten irakastea, faktore positibotzat eta ikasteko pizgarritzat hartuta.
- Inklusioa **oztopoen identifikazioan eta ezabapenean** oinarritzen da, iturri askotariko informazioa bilduz eta ebaluatuz, kultura, politika eta praktika inklusiboetan hobekuntzak plazaratzeko.
- Inklusioa **laguntza, parte-hartzea eta ikasle guztien errendimendua** da, beraz, ekintza guztiek hiru ardatz hauen inguruan lan egin beharko dute. Gainera, hezkuntza esparruko inplikazio aktibo honetan ezinbestekoa da ikasleen zein gainerako hezkuntza komunitatearen parte hartzea.

- **Inklusioak arreta berezia jartzen du** alboratuak, baztertuak edo errendimendu hobeezina lortzeko arriskua duten ikasle-taldeetan. Beraz, hezkuntza-sisteman haien laguntza, parte-hartzea eta errendimendua bermatzeko behar diren neurri guztiak hartuko dira.

1.2.3. Hezkuntza integratzailetik haratago

Herrialde askotan inklusioaren edo hezkuntza inklusiboaren kontzeptuekin nahasmen handia sortu da azken urte hauetan; batez ere, ezgaitasunak dituzten haurrak edo hezkuntza-premia bereziak dituzten beste haur batzuk eskolan integratzearen sinonimotzat hartzen baitira bi kontzeptu hauek. Hau da, inklusio-mugimendua integrazio-mugimenduarekin asimilatzen da, ikuspegi eta oinarri desberdineko bi alor direnean. Nahaste horren ondorioz, inklusio-politikak hezkuntza bereziaren arduratzat hartzen dira, hezkuntza-sistemen barruan gertatzen diren baztertze eta diskriminazio guztien azterketa mugatuz, eta aldi berean politika integratzaile integralen garapena eragozten da.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da inklusioaren fokua integrazioarena baino zabalagoa dela. Azken hau hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kolektiboari lotuta dago, eta pertsona hauen hezkuntza eskubidearen aldeko indarrak aldarrikatzen ditu, gaur egungo eskola guztietan hezitzeko; hezkuntza-prozesua eta autonomia errazteko beharrezko laguntzak eskainiz (Blanco, 2006).

Inklusioaren mugimendua, aldiz, herritar guztientzako hezkuntzaren bidean aurrera egiteko funtsezko bultzada da, herritar guztientzat kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea gauzatuz; izan ere, gaur egun ikus daitekenez, haur asko daude, ezgaitasuna dutenez gain, eskubide hori ukatuta dutenak. Inklusioa ikasle guztien parte-hartzearekin eta lorpenekin lotuta dago; bereziki, baztertuak izateko arriskuan daudenekin.

Bigarrenik, arreta-gunea desberdina da. Integrazioari buruzko kezkek gehiago oinarritu dira hezkuntza bereziaren inguruan aldaketak egitean, integrazio-prozesuari laguntzeko, baina aldi berean eskolen kultura eta praktika aldatzea alde batera utzi dute, ikasleen aniztasunari erantzuteko eta eskola horien barruan gertatzen diren bereizkeria-motak ezabatzeke gai izan gabe. Paradoxa bat dago: eskola askok ezgaitasuna duten haurrak integratzen dituzte, baina aldi berean beste ikasle batzuk baztertzen edota diskriminatzen dituzte; beraz, gerta liteke inklusioaren aldeko aurrera pausuak bertan behera gelditzea.

Nahiz eta eskola askotan aldaketa prozesuak gertatu diren, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak sartzearen ondorioz, integrazioaren mugimenduak ez dute hezkuntza sistema nabarmen aldatu. Oro har, hezkuntza bereziari dagokion arreta-eredua eskoletara transferitu da, eta arreta gehiago jarri da ikasle horien arreta indibidualizatuan (banakako programak, estrategia eta material bereziak, etab.) ikasleen parte-hartzea eta ikaskuntza mugatzen duten hezkuntza- eta irakaskuntza-testuinguruaren faktoreak aldatzea baino (Blanco, 2006).

Inklusioaren ikuspegiari dagokionez, aldiz, arazoa ez da haurra, arazoaren sorburuak hezkuntza-sistema eta eskolak dira. Ikasleen aurrerapena ez dago haien ezaugarri pertsonalen menpe soilik, baizik eta eskaintzen zaizkien aukera eta laguntzen menpe; beraz, ikasle berdinak ikasteko eta parte hartzeko zailtasunak izan ditzake eskola batean eta, aldiz, beste eskola batean ez (Blanco, 2006).

Bukatzeko, inklusioaren kezka nagusia; eskola kultura, antolaketa eta hezkuntza-praktikak eraldatzea da, ikasle guztien hezkuntza-beharren aniztasunari erantzuteko. Gainera, behar horiek jatorri sozial, kultural eta ezaugarri pertsonalen ondorio dira. Kasu honetan, integrazio-esperientzietan ez bezala, irakaskuntza ikasleen beharretara egokitzen dira, eta ez ikasleak irakaskuntzara.

Jarraian dagoen taulan hezkuntza integratzailearen eta hezkuntza inklusiboaren arteko desberdintasun nabariak ageri dira:

3. Taula

Hezkuntza integratzailearen eta inklusiboaren arteko desberdintasunak.

| ALORRAK | HEZKUNTZA INTEGRATZAILEA | HEZKUNTZA INKLUSIBOA |
|--------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>Ikasleen hautematea edo pertzepzioa</i> | Ahal den neurrian berdintasunezko egoerak eta jarrerak lortzera bideratuta. | Neska zein mutilak diren bezalakoak elkarbizitzen dira, eta onartuak sentitzen dira euren desberdintasunekin. |
| <i>Neska eta mutilen arteko harremanak</i> | Praktikan, trebetasun desberdinak dituzten haurren arteko harremanak baino ez dira bultzatzen. | Ezgaitasuna duten haurren eta ezgaitasunik gabeko ikaskideen arteko harremanak bultzatzen ditu. |
| <i>Eskola motak</i> | Aukeratutako eskola erregular bat. | Komunitateko edozein eskola. |

| | | |
|------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>Metodologia eta curriculum</i> | Ezgaitasunen bat duten haurrentzako saio bereziak | Aniztasun curricularra eta ikaskuntza erritmo desberdinak errespetatzen dituzten metodologiak. |
| <i>Hezkuntza sistemaren ezaugarriak</i> | Haurra eskolara egokitzea. | Hezkuntza-sistema haurrari egokitzen zaio |
| <i>Norekin ikasten dute</i> | Behar bereziak dituzten haurrek elkarrekin ikasten dute. | Haur guztiak batera ikasten dute. |
| <i>Irakaslea</i> | Gelako irakaslea edo espezialista da. | Gelako irakaslea, edo baliabideetako, edo espezialista. |
| <i>Irakaskuntzaren eraginkortasuna</i> | Bere garapenean ohikoak diren ikasleei laguntzeko espezialitatea. | Haur guztiak ikaskuntza prozesuan sartzeko gaitasuna. |
| <i>Haurrek parte hartzeko aukerak</i> | Partziala. | Berdina haur guztientzat. |
| <i>Erabiltzen diren beste ikuspegi batzuk</i> | Berdinen artean ikasten dute. | Aniztasunean ikasten dute. |
| <i>Familiaren parte-hartzea. Akonpainamendu mota</i> | Mugatua. | Iraunkorra. |
| | Irakasle eta familia bakarrik. | Hezkuntza komunitateko kide guztiak prozesu osoari laguntzen diote. |
| <i>Politika motak.</i> | Ezgaitasuna duten haurren sektore bati ematen zaio arreta. | Politika integralak behar dira. |

Oharra: Foro Educativo, 2007, 23.or. Egileak euskaratuta.

Laburbilduz, eskola inklusiboa normalizatzea egungo gizartearen beharra da, bere burua orokortasunean hezteko eta eredu bidezkoagoak eraikiz aurrera egiteko. Hori lortzeko, ezinbestekoa da eragile ugari izatea eta erakundeen eta profesionalen arteko lankidetzaren sareak sortzea. Baliabideak eta praktikak partekatzeak sentsibilizazioa erraztuko luke, eta galdera berriei eta balio-aldaketei bide emanda. Aurrekoarekin batera, beharrezkoa da komunitate osoan balio berriak sustatzea, hezkuntzako profesionaletan, familietan eta, oro har, herritartasunean, eskola inklusiboa ere gizarte-ingurune inklusiboaren parte izan dadin ahalbidetuko duen lankidetzaren garatzea.

Nire ustez, horretarako, informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egin behar dira, eta, kanpaina horietan, erabili beharreko baliabideak tokiko, autonomia-erkidegoko, eta abarreko kanpainen koordinatu behar dira. Beraz, nire kasuan ikasleen arteko kooperazioan oinarritutako esku-hartzeak hezkuntza eta gizarte inklusibo baten

sustraiak indartzeko helburua du, eta horretarako jolas kooperatiboak erabiliko dira baliabide hezitzaile gisa, ikasleen artean herritartasunaren aldeko balioak gainjartzeko eta kooperazioaren garrantzia azaleratzeko.


1.2.4. Jolas kooperatiboak

Jolasa aztertzeko orduan, hainbat aukera topa ditzakegu, helburu eta egitura desberdinekin erabilitako metodologia edo jokaeren arabera. Curriculumaren arloan, hiru proposamen nagusi hauek aurki ditzakegu (Pujolàs, 2012):

- **Banakako jolasak:** komunikaziorik gabeko egoerak eta informazio trukaketa ezak lehenesten dira. Horrelako jardueretan ez dago elkarrekintzarik gizabanakoen artean, eta ez dago harreman zuzenik banakako eta taldeko helburuen artean ere.
- **Lehiaketa-jokoa:** pertsona-talde batek beste baten aurka jarduten du, garaile eta galtzaileak jolasaren amaieran bereiztuz. Garaipena lortzeko, ezinbestekoa da jardueraren helburu finala kontrako ikasleak baino azkarrago lortzea. Jolas hauetan ikasleen autoestimuan eta izaeran eragin zuzena duten porrota eta arrakasta daude.
- **Lankidetzajokoak:** zuzeneko harremana dago helburuen eta taldekideen artean; parte-hartzaile guztiek helburua lortuz arrakasta lortuko dute. Guztien parte hartzeari esker ezagutza propio bat eraikitzen dute, elkarrengandik ikasiz.

2. Irudia

Jolas egitura desberdinak.



Oharra: Pujolàs, 2012, 101.or. Egileak euskaratuta.

Jolas kooperatiboa lankidetzaren ezaugarrietan oinarritzen da. Hona hemen jolas kooperatiboaren definizio batzuk:

Orlick eta López-en arabera (2002), jolas kooperatiboak ideia hau defendatzen du:

Besteekin jolastea besteen aurka jolastea baino hobeto; erronkak gainditzea baina gainerako kideak gainditu gabe; eta jokoen benetako egiturak askatzea, jolasaren esperientziaz gozatzeko. Jokalariak ez dute estimua bestearen kontura mantendu behar. Haurrek elkarrekin jokatzeko helburu komunak lortzeko, batzuk besteen aurka jokatu beharrean. Jolasten ari diren bitartean, modu dibertigarrian eta inklusiboan elkarren arteko harremanak sendotzen dituzte, besteen emozioekin eta sentipenekin batera empatia garatzen doaz eta ondorio positibo komun batzuk eratzen doaz. (Orlick eta Lopez, 2002).

Velázquezek (2004) jolas kooperatiboaren definizio bat bilatuz, "parte-hartzaile guztien helburu bateragarri batzuk partekatzen dituztenean, eta kideek rol berdina edo rol desberdinak garatuz doazenean, eta aurkakotasunik sortzen ez diren ekintzei" jolas kooperatiboak deritza. (Velázquez, 2004).

Jolas kooperatiboak hurrengo definizioaren barne sailka ditzakegu: jokalariek helburu komun batzuk lortzeko laguntza eman eta jasotzen dute aldi berean. Jolas hauek komunikazioa, kohesioa eta konfiantza lantzearekin batera, jolas kooperatiboaren oinarri hezitzaileetan lankidetzeta eta partekatzea ditugu.

Laburbilduz, jolas kooperatiboa talde kohesioa hobetzen laguntzen duen jolas gisa defini daiteke, lehiakortasuna ezabatuz eta parte-hartzaile guztien arteko laguntza eskaerak bermatuz. Jolas mota honek ikasle guztien partehartzea sustatzen du, eta horrekin batera komunikazioa, elkarrekiko konfiantza, eta batez ere ikasle guztien elkar lanari esker helburu edo xede komun bat lortu behar dute.

○ **Ezaugarriak**

Behin jolas kooperatiboaren definizioak aztertuta eta azalduta, jolas kooperatiboaren ezaugarri propioak datoz.

Omeñaca eta Ruizen arabera (1999), jolas kooperatiboak aukera hauek ematen ditu:

- Arazo edo ekintza baten aurrean konponbideak libreki bilatzen dira.
- Prozesua produktuaren gainetik dago.

- Akatsen alde positiboak saritzea, ikasleen autoestimua indartzeko jarrera gisa ulertuta.
- Gizarte-balioak eta -trebetasunak barneratzea.
- Norberaren eta besteen arrakasta baloratzea.

Beraz, aurretik zerrendatutako ezaugarrietan arreta jarriz, esan dezakegu jolas kooperatiboek ikasleak baztertzeko aukerak murrizten dituztela. Baina hori lortzeko bide bakarra talde bateratu gisa lan egitea da helburu komun bat lortzeko. Helburu komunak proposatzean eta lehiaketa ezabatzean, ikaslea konturatzen da gainerako kideek helburua lortzen ez badute alferrikakoa izango da aurretik egindako guztia, batez ere guztiek eskutik helduta heldu behar direlako amaierako helmugara.

Behin ikaskuntza-zerbitzuaren, hezkuntza inklusiboaren eta jolas kooperatiboaren definizioak, ezaugarriak eta berebiziko garrantzia duten aspektu hezitzaile desberdinak aztertutik, nire esku hartze edota proposamen didaktikoari ateak irekitzeko ordua heldu da. Beraz, jarraian burutu dudan proposamen didaktikoaren alor desberdinak landuko dira eta zerbitzu inklusiboaren oinarri desberdinak ezagutzeko aukera egongo da, egingo denaren azalpen batekin hasita eta amaieran lortu diren emaitzen analisi batekin bukatuta.

2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Hurrengo atal honetan, aurretik azaldutako oinarri teorikoan oinarrituz Gasteizko ikastolan aurrera eramandako esku hartzea azaldu, aztertu eta garatuko dut. Horretarako, hasieran, esku-hartzea zein testuingurutan, norekin eta zein helburuekin egin den ikus daiteke. Bigarrenik, erabilitako metodologia azalpen labur bat egongo da eta prozesuan aurrera eramandako ekintza eta dokumentazio jarraibideak azalduko dira. Eta bukatzeko, esku-hartzearen planifikazioa eta lortu diren emaitzen analisi sakon bat egongo da, informazio teknika desberdinen bidez erregistratutako datuen lanketa eginez.

2.1. IKASTETXEAREN TESTUINGURUA

Nire ikaskuntza zerbitzua Gasteizko ikastetxe batean aurrera eramango dut. Ikastetxea ikastetxe publiko bat da eta ikastolak auzoaren izena hartzen du. Azken hamarkadan aldaketak nabaritu izan dira eta auzoak handitze prozesu bat bizi izan du, beraz, honen harira, ikastolak ere aldaketa handiak pairatu izan ditu. Ikastola ixteko zorian zegoen, baina egoera horren aurrean etorkizunaren aldeko apustua egitea erabaki dute, eta egoera horren aurrean hurrengo erabakiak hartu ziren: D eredu ezarri zen, bi urteko

gelak zabaldu ziren, jantoki zerbitzua antolatu zen, liburutegi proiektua martxan jarri zen. Erabaki guzti hauen ondorioz 50 ikasle izatetik aurtan 400 ikasle inguru izatera iritsi dira.

Familien egoera kultural eta ekonomikoari dagokionez, erdi mailako edo gehien bat behe mailakoak direla esan dezakegu. Dezente dira neurri batean edo bestean gizarte laguntzen zerbitzua erabiltzen dutenak, eta horrekin batera ikastolak eskaintzen duen jantokiko zerbitzua ikasleen %80ak erabiltzen du. Orduan, nire ikaskuntza-zerbitzuan oinarritutako proiektuari begira, aurrera eramango dudana zerbitzura gerturatuko zitzaizkidan ikasle kopurua aipagarria izango zen.

Aurrekoarekin jarraituz, jatorriari dagokionez, ikastola euskal gizartean emandako aldaketaren ispilua dela esan daiteke eta bertako errealitatea aldatzen joan da. Une honetan jatorri, hizkuntza eta kultura anitzeko familiak eta ikasleak daude ikastolan, %35a inguru atzerritik etorri berriak dira, eta erronkari ahalik eta modu eraginkorrenean eta inklusiboenean erantzuten saiatzen dira, besteak beste: metodologian eta curriculumean aldaketak eman dira, hizkuntza trataera desberdinak egin dira eta aniztasunaren trataera globala egin da, hori bai, eskola inklusiboaren ikuspuntutik.

Honekin batera, ikastetxearen oinarri hezitzaileekin bat eginez, lan dinamika eta ikaskuntza-zerbitzu boluntarioei ateak irekitzen dizkiete, ikaskuntzaren aberastasuna eta alde biko irabaziaz lortzeko asmoz. Ikastetxeko irakasleen hitzetan: ikastolak jasotzen dituen laguntza boluntarioei esker ikasleek etorkizunean aurkituko duten errealitatearekin trebatzeko aukera izango dute eta gainera metodologia aurrerakoietan murgiltzeko aukerak izango dituzte”.

Hori dela eta, ikastetxeko zuzendaritza taldeak eta jantokiko arduradunak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle batzuekin harremanetan jarri ziren, ikasleek zerbitzu kooperatibo eta inklusibo bat jaso dezaten. Beraz, inklusioari buruzko ikaskuntza-zerbitzua martxan jartzea erabaki zen.

2.2. PARTE HARTZAILEAK

Aurreko atalean azaldu bezalaxe, ikaskuntza-zerbitzua Gasteizko Lehen Hezkuntzako ikastola publiko batean egin da, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloko hirugarren eta laugarren mailako ikasleekin. Esku hartzean 63 ikasle hartu zuten parte, 28 mutil eta 35 neska izanik.

Nire kasuan, saio bakoitzean maila bateko ikasle taldearekin jardungo naiz, beraz, nire saioetan 15 ikasle inguru bildu dira. Hurrengoak izan dira maila bakoitzean izandako ikasle kopurua:

| MAILA | 3.A | 3.B | 4.A | 4.B |
|--------------------|-----------------|------------------|-----------------|-----------------|
| IKASLE KOP. | 15 ikasle | 16 ikasle | 18 ikasle | 14 ikasle |
| | 8 NESKA 7 MUTIL | 10 NESKA 6 MUTIL | 9 NESKA 9 MUTIL | 8 NESKA 6 MUTIL |

2.3. ZERBITZUAREN HELBURUAK

Gradu Amaierako Lanak (GRAL) proiektuaren hasieran zerrendatutako zeinbat oinarri indartzen dituen arren, esku-hartzeari esker espezifikoagoak diren beste hainbat helburu hezitzaile eta inklusibo lantzen ditu, besteak beste:

- Klase kideen arteko harreman afektiboak hobetzea, ikasle guztien parte hartzea eta jarrera inklusiboak bermatzea.
- Hezkidetzako jarrerak eta balio ez-sexistak zein kooperatiboak garatzea, jokoaren garapena erraztuta.
- Bizikidetzeta eta lankidetzeta sustatzea, bereizkeria eta aurreiritziak saihestuta.
- Elkartasuna eta adiskidetasuna adieraztea, jarrera oldarkorrek edo norgehiagokakoak baztertuta.
- Ikasleen garapen integralera hurbiltzen gaituzten arlo emozional, afektibo, fisiko eta kognitiboak garatzea.
- Klase eta segurtasun arauak ulertu eta errespetatzea

2.4. EZAUGARRI PEDAGOGIKOAK

Ikaskuntza-prozesua kudeatzeko hautatzen den bidea edo estrategia da metodologia, prozesu horretan parte hartzen duten elementu guztiak kontuan hartuta. Nola irakasteari buruzko galderari erantzuten dio. Irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten aldagaien aurrean egindako hautaketan emaitza eta sintesia da.

Nire unitate didaktikoan aurrera eramane diren oinarri metodologikoak eta didaktikoak aztertuz, Fernández-Rio-k eta Méndez-Giménez-ek (2016) eta beste autore batzuk adierazten dute ez dagoela hezkuntza-eduki edo -testuinguru guztietarako balioko duen irakaskuntza-eredu bakar bat; beraz, beharrezkoa da horietako batzuk edo batzuen zatiak erabiltzea. Beraz, metodo desberdinen artean hibridazioak gertatzen dira, nire unitate didaktikoan bezalaxe. Hibridatzeak elementu desberdinen zatiak elkartzea esan nahi du, eta, beraz, eredu pedagogikoen hibridazioetan eredu desberdinetako elementu esanguratsuak batera edo modu konbinatuan erabiltzen dira.

Behin hori jakinda, nire unitatera hurbilduz, aurrera eramandako egoera motorrak nik planteatutakok eta gidatuak izan arren bi ezaugarri pedagogiko nagusi gain hartu ditut nire saioen garapenetan. Alde batetik, ikaskuntza kokatuan oinarritu naiz non ikastearen poderioz ikasleak, ezagutzak eta ingurua konektatzen diren. Eta bestetik, ikaslea ardatz duen irakaskuntza: irakasleak saioan duen protagonismoaren eta erantzukizunaren zati bat eman behar dio ikasleari (Fernández-Rio eta Méndez-Giménez, 2016). Orduan, irakaskuntza metodo hauen artean egindako hibridazioaren bidez nire klasea aurrera eramateko aukerak izan ditut, eta hurrengo abiapuntu hauek izan dira nire unitate didaktikoaren ezaugarri pedagogikoak:

- Ikasleek esperimentatzeko aukera eskaini zaizkie, bai bakarka baita talde egoeretan ere.
- Planteatuko eta gidatuko ziren jardueretan progresio bat bilatuko zen, honi esker, ikasleen garapena ahalik eta esanguratsuen izateko aukerak bermatuko genituen.
- Ikasleen parte hartzea areagotuko genuen galderen edota hausnarketa egoeren bitartez.
- Lehiakortasunezko zein kooperaziozko egoera motorrak aurrera eramango ziren.
- Ikasleen protagonismoa sustatuko genuen.

Eredu pedagogikoek aplikazio-aukera asko eskaintzen dizkigute, eta testuingurura, edukietara eta ikasleetara egokitu daitezke, ikasgaiaren praktikan egokitzapen orekatuena eta eraginkorra lortzeko. Ikaslea funtsezko elementua izan behar da irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan, eta autonomia eta erantzukizuna garatzeko eta jarduera fisikoa bizitzan zehar funtsezko elementutzat hartzeko aukerak eman behar zaizkio. Hala ere, ez dago “errezetarik” ikasleek hezkuntza-esperientzia osoan zehar ikas eta goza dezaten; baina aitzakiak ere ez daude eredu pedagogikoak eguneroko jardunetan erabiltzen hasteko. Hauei esker, zehaztasuna, koherentzia eta ikusgarritasuna ematen zaio hezkuntza-ahalmen handia duen ikasgai bati, eta curriculumeko gainerako ikasgaiekin koordinaturik egonda ikasleen prozesu hezitzailean hobekuntza orokorrak lor daitezke.

2.5. PLANIFIKAZIOA

Behin ikaskuntza-zerbitzuan erabiliko zen metodologia jakinda, ezinbestekoa zen saioen planifikazio bat gauzatzea eta aurrera eramango ziren jardueren antolamendua adostea. Horretarako, lehenik eta behin EHUko irakasleekin batera, ikastetxeko zuzendariarekin eta jantokiko arduradunarekin elkartu ginen, gure ekimenak partekatu genizkien eta

horren harira saioen planifikazio bat gauzatu genuen. Gasteizko ikastolan aurrera eramandako ikaskuntza-zerbitzu inklusiboan 3, 4, 5, eta 6. mailako ikasleak parte hartu zuten eta bi irakaslek aurrera eraman genuen esku hartzea, Carmen eta nik alegia. Beheko taulan agertzen den bezala, Carmenek 5. eta 6.mailako ikasleak barne biltzen zituen, eta nire kasuan, 3. eta 4.mailako ikasleekin aurrera eraman nuen nire proposamena.

| 2020KO OTSAILA | | | | | | |
|----------------|----|----|----|----|----|----|
| Al | Ar | Az | Og | Or | Lr | Ig |
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| C | J | C | J | | | |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| C | J | C | J | | | |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| J | J | | | | | |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | |
| J | J | | | | | |

Carmen (C): 5. eta 6. maila

(12:55-13:55)

Jorge (J): (13:55-14:55)

- 3.A maila
- 3.B maila
- 4.A maila
- 4.B maila

Bestalde, saioen banaketa zehaztu ostean esku-hartzean aurrera eramango ziren jolas desberdinak diseinatu eta programatu behar ziren. Horretarako, **Eranskinak I** atalean ikasleekin planteatu diren jolas kooperatibo eta inklusibo desberdinen zerrenda ageri da, haien arteko parte hartzea eta aukera berdintasuna bilatuta.

2.6. EKINTZAK

Nire esku hartzeari esker lortu nahi diren helburuak eskuratzeko berebiziko garrantzia du aldez aurretik ekintza zehatz batzuk planifikatzea eta hauen ezaugarri zehatzak biltzea. Horretarako, atal honetan ikaskuntza-zerbitzua aurrera eramateko lantzen diren lau ekintzen ezaugarri zehatzak azalduko dira, zerbitzuaren barne egituraketaren azalpen zehatzago bat adierazteko asmoz. Esan beharra dago, lau ekintza hauen arteko harremanak eta interdependentzia ezinbestekoa direla kalitatezko zerbitzu baten alde egiteko.

Bestalde, programazio osoa *Eranskinak I* atalean kokatuta dago, non ikasleekin aurrera eramaten diren jolas kooperatiboen deskribapen zehatzak ageri diren.

ZERBITZUA PRESTATZEKO

- Ikastetxeak eskaintzen dituen baliabideak aztertuz eta ikasleen ezaugarrien informazioa jasoz egingo denaren planifikazio bat egitea.
- Ikaskuntza zerbitzu inklusiboari esker lortu nahi diren helburuak zehaztea.
- Ikasleekin aurrera eramango diren jarduerak programatuko dira, inklusioa eta kooperazioa oinarri izanik.

SARRERA ESKOLAN ETA TALDEAN

ESKOLAN

- Ikasle taldearekin bildu aurretik ikastolako zuzendari zein ikasle taldeen tutoreekin biltzea, ikasleen inguruko informazioa jasotzeko.
- Lan egiteko konpromezua eta gogoak azalera.

IKASLE TALDEAN

- Ikasleekin elkartzea eta egingo denaren inguruko azalpen argiak ematea.
- Ikasleen nahiak eta interesak ezagutzea eta jasotzea, etorkizuneko saioetan aldaketak eginez.

ZERBITZUA MARTXAN DAGOEN BITARTEAN

- Ikastolako 3. eta 4.mailako ikasleekin jolas eta erronka kooperatiboak egingo dira. Ikasle guztien parte hartzea eta lankidetzazko bilatzea izango da saio guztien helburu nagusienetarikoa bat, inklusioari berebiziko garrantzia emanez noski. Gainera, ikasle guztiak talde baten parte sentituko dira, eta konturatuko dira haien erabaki eta ideiei esker bere taldeak saioen helburuak lor ditzakela, haurren autoestimua berpiztuz.

ITXIERA

- Ikasleek bizi izandako saioak ebaluatzeko aukera izango dute, eta horrekin batera, ikasleak ebaluatuko izango dira.
- Kooperazioaren eta inklusibitatearen garrantzia azalduko zaie, etorkizunean bi hauen erabilpena bermatzeko

2.7. DOKUMENTAZIOA

Nire esku hartzean dokumentazioa eta informazioa jasotzeko bide desberdinetan oinarritu nintzen, hauei esker ikasleen jarrerak, sentipenak, egindakoak aztertzeak aukera izan nuen, eta batez ere, nire esku hartzearen balorazioa propioa egiteko aukera izan nuen, aurrerago ikusiko duzuen bezala, datuak analizatuz eta emaitzak ateraz.

Honekin batera, hurrengo estrategia hauek izan ziren nire esku hartzen erabili nituen dokumentazio baliabideak:

- Behaketan oinarrituz egunero gertatutakoa idatzi.
- Saio bukaeran beti ikasleen feedback-a jaso nuen, saioaren azken 5 minututan ikasleekin hitz eginez.
- Saio guztien amaieran ikasle guztiek semaforo orri bat beteko zuten nire saioa ebaluatzeko.
- Behin saioa bukatuta zegoela, ikastetxeko metodologia jarraituz, ikasle bakoitza ebaluatuko nuen "Puntu Berdearen dinamika eginez. Horretarako, bi ebaluazio irizpide izan nituen (ikastetxeak ezarritakoak):
 - Gainerako ikasleak errespetatu ditut.
 - Poliki sartu eta atera naiz.

Beraz, ikasle guztion parte hartzea sustatu nuen ebaluazioan eta ikasle guztiak ebaluatuak izan ziren, ikasleen artean errespetuan oinarritutako iritzien partekatzeak bermaturik. Kalitatezko hezkuntza baten bila doan bidea hartzen baldin badugu ebaluazioa berebiziko garrantzia duen osagai bat izan behar da. Nire kasuan, ebaluazioari esker ondorioak atera nituen, eta hauei esker, etorkizuneko irakaskuntza estrategiak, estiloak edota prozesuak zalantzan jartzeko eta hobetzeko aukerak izan nituen.

Argi dago, ebaluazioari esker garrantzia handiko ondorioak lortzen direla, baina horrekin batera bizi izandako egoera desberdinen analisia egin behar da, bai irakaskuntzak izandako emaitzak lortzeko eta baita gure zerbitzuaren kalitatearen berri izateko ere. Orduan, hurrengo puntuan esku-hartzean zehar lorturiko emaitzak zerrendatu eta aztertuko dira, lanari osotasuna emanez.

2.8. EMAITZEN ANALISIA

Hezkuntza mailan aurrera eramandako ikaskuntza-zerbitzuaren emaitzak aztertzeko eta lortzeko ordua heldu zaigu. Esku-hartzearen lau asteetan zehar bizi izandako egoera desberdinek dimentsio, kategoria eta azpikategoria desberdinetan izan dute eragina. Honen aurrean, jolas kooperatiboari esker lortutako emaitzen analisia egingo da, eta honi esker, egindako zerbitzu inklusiboaren ondorioak eta balorazioak lortuko ditugu. Honekin batera, esan beharra dago 3. eta 4. mailako ikasleekin egindako zerbitzu bat izan dela, non ikasleen garapen maila desberdinekin egiten dugun topo.

INFORMAZIOA BILTZEKO TRESNAK

- Landa oharrak
 - Narrazio etnografikoak (egunerokoa)
 - Argazkiak edo marrazkiak
 - Erabilitako edo sortutako baliabide materialak (fitxak, ebaluazio tresnak, txartelak...)
-

EMAITZEN ANALISIAK EGITEKO JARRAITUTAKO PAUSUAK

1. Informazioa antolatu eta ordenatu. Informazioa biltzeko tresnei esker lortutako informazio guztia artxibo bakar batean bildu dut eta jasotako informazio bilgune bakoitzari kode bat jarri diot. Honi esker, informazioa antolatzeko aukera izan dut.

2. Informazioa sailkatu: laburtu, elkartu eta ordenatu. Bigarrenik, kategoriak jarri eta sistema kategoriala osatu dut. Horretarako, dimentsio, kategoria eta azpikategoria desberdinetan oinarritu naiz. Bukatzeko, kategoria guzti hauek alfabetikoki ordenatu ditut.

3. Berrantolatu eta berrirakurri. Bestalde, sailkatutako materiala irakurri eta interpretatu dut. Horretarako, eskura ditudan erantzun guztiak edo ahotsak irakurri ostean, testua idatzi dut, ahots eta erantzun guztiak laburtuta. Esan beharra dago, informazioa laburtzearekin batera ahots gutxi batzuekin geldituko naizela, ahots esanguratsuenekin edota aberasgarrienekin.

4. Emaitzen aurkezpena. Bukatzeko, aurreko pausu guztiak burutu ondoren lortu ditudan emaitza guztiak aurkeztu ditut.

EMAITZAK

Proposamenari amaiera emateko, ezinbestekoa da parte hartzaile guztien jokabideei esker lortutako emaitzak izendatzea eta aztertzea, burutu izandako zerbitzuak gauzatu dituen ondorioak baloratzeko eta analizatzeko. Jarraian, besteak beste, nire sentipenak, ikasleen aurre-ideiak, esperientziak, haien arteko harremanak, eskuratu dituzten rolak edota ikasleen jarrerei esker lortutako emaitzak aztertuko dira, ikaskuntza-zerbitzu inklusibo bati esker jaso diren lorpenak adierazteko.

Jolas kooperatiboak eta irakasle berri baten sentipenak

Informazio antolaketan zehar nire sentipenen inguruko egoera desberdin zein anitz ugari adierazi dira. Kasu gehienetan emozionalki jarrera positiboak sustatzen dituzten egoerak bizi izan dira, eta hauek ikasleen askatasun mailarekin izan dute erlazioa.

Noraezean nabil, ikastetxearen inguruko informazio faltak nire urduritasun maila sustatzen du, eta gainera, niretzat hezkuntza esparruan ezezagunak diren jolas kooperatiboak hasiera emango diet. (Egunerokoa, 2020/02/03)



(Gasteizko ikastola, 2020/02/17)

Ikasleak libre dira, ikasleek egiten dutenez disfrutatzen dute eta nire kontzientzia lasai dago, lan egiteko gogoak suspertuz. (Egunerokoa, 2020/02/17)

Beraz, nire sentipen egoera urduritasun maila batetik gozamen maila batera igaro dira esku hartzean zehar. Nahiz eta zailak izan diren egoera gutxi batzuk bizi izan ditudan, erabilitako jolas kooperatiboek esker emozionalki positiboak izan diren emozioak lortu ditut.

Zer nolako aurre ideiak zituzten umeei jolas edota ekintza kooperatiboaren inguruan?

Ikasleekin gai edota eduki berriak lantzerakoan ezinbestekoa da irakaskuntza metodo konstruktiboekin hastea, hau da, lehenik eta behin ikasleen aurre ideiak ezagutu behar dira. Jasotako informazio guztia aztertuz, ikasleek jolas kooperatiboak eta kooperazio terminoak zer ziren ulertzen zuten eta azalpenak emateko gai ziren.

3. mailako ikasleek jolas kooperatiboek emandako definizioak: *“guztiok jolasteko jolasak”, “ez du inor galtzen”, “guztiok parte hartzen dugu. (LH-ko 3.mailako ikasleak, landa-oharrak, 2020/02/03)*

4. mailako ikasleen definizioak: *“guztiok irabaziko dugu jolasetan eta lagundu behar gara”, “no son competitivos”. (LH-ko 4.mailako ikasleak, landa-oharrak, 2020/02/04)*

Orduan, ikasleen aurre ezagutzak aktibatuz haiek ideak, iritziak eta zalantzak adierazteko aukerak izan dituzte. Honekin batera, ikasleak gaiaren barne sentitu dira eta haien parte hartze eta konpromezu maila lortzeko aukera gehiago egon dira.

Ezinbestekoa da ikasleen aurre ideiak aktibatzea eta zerbitzu honi esker ikasleen ideiek argia ikusi dute. Bukatzeko, esan beharra dago 4.mailako ikasleen ideiak askoz sakonagoak eta landuagoak izan direla, batez ere, jolas kooperatiboekin izan dituzten bizipenak ugariagoak izan direlako.

Zer nolako esperientziak izan dituzte ikasleek?

Ikasleengan esperientzia positiboak sortzea garrantzia handiko faktorea da, batez ere, kooperazioa eta inklusioa lantzen dituen unitate didaktiko bat jorratzerakoan. Proposamenen zehar ikasleak aktibo, motibatuta, eta batez ere, gainerako kideekin kohesionatuta aritu dira. Era berean, ikasle askok jolas kooperatiboekin izaten zuten lehenengo harremana zen, beraz, esperientziaren poderioz etorkizunera begira kooperazioarekiko erlazio estuak garatzeko aukera sendoagok izango dituzte.

Ikasleak korrika daude, elkarrekiko begiradak partekatuz, jolasarekin disfrutatuz eta jolasteko nahiak asetuz. Maila honetako ikasle askok jolas kooperatibo bat aurrera eramaten duten lehenengo aldia da, baina kideekin lan eginez jolasaren helburua lortzeko gutxi falta zaie. Irribarreak dira saioaren protagonistak, eta nire barnean ezezaguna nuen emozio berri bati hasiera eman diote. (Egunerokoa, 2020/02/03)

Beraz, ikasleen esperientziak positiboak izan arren, ikasleengan zailak edota desatseginak izan diren beste hainbat esperientzia egon dira, baina horien aurrean erantzun azkarrak eman ditut, hasierako egoera positibora eta ikasleen ongizatera bideratuz.

Zer nolako harremanak edota lidergo motak eman dira taldean?

Ikasleekin emandako lehenengo saioetatik aurrera ikasleen arteko harremanak, eta batez ere, lidergo motak aztertu eta identifikatu ditut. Lehen hezkuntzako maila guztietan bezalaxe, ikasle guztien arteko harremanak eta lidergo motak desberdinak dira. Hasieratik ikasle parte hartzaileagoekin egin dut topo, baina horrek ez ditu gainerako ikasleak bigarren plano batean jarri. Bestalde, lidergo motei erreferentzia eginez 3.mailako ikasleekin lidergo egoera gutxi azalerratu dira, aldiz, 4.mailako ikasle taldean mutilek lidergo jarrera negatibo ugari adierazi zituzten, gainerako ikasleak eta batez ere neskak baztertuz.

Aldez aurretik esan beharra dago ikasleen arteko giroa egokia dela eta gainera talde txiki baten aurrean egoteak nire jolas kooperatiboen garapenean ondorio positiboak izango dituelakoan nago. Ikasleek modu automatiko eta autonomo

batean ilara osatzen dute, elkarrekiko errespetuzko jarrerak erakutsiz. Hasiera batean, ikasleen jarrerekiko zalantza asko nituen, baina behin ikasleen jokabideak eta esanak azterturik beldur guztiak alde batera utzi nituen, gainera ikasle guztiak taldearen parte sentitzen dira. (Egunerokoa, 2020/02/03).

Mutil talde bat jolas kooperatiboaren helburua lortu ezinik dabil, elkarren artean egoerari aurre egiteko erabaki desberdinak hartzen dituzte, baina ez dituzte onuragarriak diren emaitzak topatzen. Beraz, materiala utzi eta gainerako taldeetara hurbiltzen dira, haien egitekoak oztopatuz eta egokiak ez diren jarrerak azaleratuz. Egoera horren aurrean gainerako ikasleen jarrerak ez dira aldatzen eta mutilen lidergo egoeraren aurrean jolasarekin jarraitzen dute, nahiz eta mutilen jarrerek jolasaren funtzionamendua geldiarazi. (Egunerokoa, 2020/02/18).

Mailen arteko desberdintasunak argiak izan dira bai ikasleen arteko harreman motetan baita lidergo motetan ere. Honekin batera, mutilek eskuratutako lidergo jarrerek taldean ondorio negatiboak zekartzaten, beraz, irakasle gisa momentuak erabaki desberdinak hartzerantz bideratuta izan naiz; ikasleen arteko harremanak sustatzeko eta lidergo negatiboaren egoera ezabatzeko asmoz, noski.

Nolakoak izan dira ikasleen erantzunak?

Ikasleen erantzunak orokorrean aztertuz, egindako eguneroko, landa-ohar eta batez ere ebaluazio tresnei esker ikasleen erantzunak jasotzeko aukera izan dut. Ikasleak parte hartzaileak izan dira eta gainerako ikasleengan errespetuzko jarrerak helarazi dituzte, eta gainera, saio ebaluazioa egiterakoan modu positiboan ebaluatu dute bai euren burua eta baita jolasak ere. Hala ere, talde guztietan, zenbait ikaslek jolasetan aurrera eramaten zen lehiakortasun maila eskasaren ondorioz, parte hartze gutxi izan zuten edota jolasak ez zituzten gustuko; hori bai, izendatutako ikasle guzti hauek mutilak ziren.

“Oso ondo pasa dut eta asko gustatu zait jolas guztiak”. (LH-ko 3.mailako ikasle bat, neska, 3. saioaren inguruko ebaluazioa, 2020/02/10)

“Gaur ez gara baloiarekin jolastu, ez zait gustatu, ez dut parte hartu”. (LH-ko 3.mailako ikasle bat, mutila, 3. saioaren inguruko ebaluazioa, 2020/02/10)

Esan beharra dago, analisi honi esker konturatzen gara mutilek gehien bat jolas lehiakorrek edota kirolekin erlazio zuzen eta estuagoa garatu izan dutela, horren ondorioz, jolas edota erronka kooperatibo baten aurrean irabazteko grina individual horrek haien kooperaziorako nahia xahutzen duela. Bestalde, neskek askoz erantzun

esanguratsuak ematen dituzte, eta era berean, saioaren funtzionamendua aberasten duten jarrerak azaleratzen dituzte.

Irakaslearekiko jarrerak egokiak izan dira?

Irakasleok saioetan gertatzen diren bizipen edota jarrera negatiboekin soilik gelditzen gara, baina gure begiak irekitzen ditugu askoz egoera positibo eta aberatsagoak topatzen ditugu. Saioetan zehar, nire behaketari esker bizipen asko jaso ditut, eta batez ere, ikasleen jarrerekiko egoera anitz asko bizi izan ditut. Behin begirada desberdin batekin klaseei arreta jarritz, ikasleen jarrerak orokorrean oso egokiak izan dira, elkarren arteko errespetua izanik, ikaskide bakoitzak eskuratutako rola onartuz...

ADISKIDETASUNAREN ARGAZKIA



(Gasteizko ikastola, 2020/02/17)

Gaurko saioan ikasleak oso ondo ibili dira eta aurreko saioei erreferentzia eginez, geroz eta gusturago aurkitzen naiz ikasleekin, haien jarrerek nire jolasen funtzionamendua errazten dute eta beti laguntzeko prest egoten dira. Gaurko egunean irakasle lanetan bizi izan dudana egoera emozionalik sakonena bizi izan dut. (Egunerokoa, 2020/02/17)

Laburbilduz, ikasleen jarrerak ikuspuntu desberdin batetik aztertzen baditugu eta ikasleen jarrera positiboetan oinarritzen baldin badugu gure feedback-a edota ebaluazioa kalitatezko hezkuntza baten bila joango gara, eta lortutako emaitza honek ezezaguna dudana hezkuntza metodo berri baten bila joatera bultzatu nau.

Eskuratu dudan rola eta ikasleen askatasun afektiboaren arteko erlazioa

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar erabiltzen den metodologiaren arabera ikasleen askatasun maila, eta beraz, ikasleen harremanak edota garapen afektiboa bermatzeko egoerak baldintzatuak dira. Nire kasuan, ikasleen askatasun maila handia izan da eta gaitasun sozialak edota afektiboak garatzeko aukera izan dute. Informazioa aztertuz, gidari rola eskuratuz, ikasleek garapen soziala jasotzearekin batera, kasu askotan arauen errespetua mantentzeko arazoak izan dituzte, batez ere, laugarren mailako ikasleek.

Momentuz, ikasleen erantzunak egokiak dira eta haiek dira jolasaren protagonistak. Ikusten da haien arteko komunikazio egoerak daudela, baina beste ikasle batzuk taldeko komunikazio egoerak alde batera utziz erronkari aurre egiten dio, bera bakarrik eta jolasaren arauak errespetatu gabe. (Egunerokoa, 2020/02/25)


Saioaren hasieratik ikasleak jolastokian dagoela uste du eta bere jarreraren ondorioz berarekin hitz egitea erabakitzen dut, bere jarrera aldatzeko helburuarekin noski. Ez ditu jarraitu adostuta genituen arauak, beraz, berarekin hitz egitea erabakirik onena izango delakoan nago. (Egunerokoa, 2020/02/18)

Laburbilduz, metodologia honen aukeraketa egiterakoan banekien zeintzuk ziren alde onak eta txarrak, baina egia esan ikasleen garapen sozial eta afektiboan emandako aurrera pausuak askoz nabariagoak izan direla aipatu beharra dago. Ikasleek arauak apurtzeko jarrerak eskuratu arren, gainerako ikasleek ere asko lagundu naute eta horrelako jarreraren aurrean haiek ere erabakiak hartu dituzte.

Nolakoak izan dira ikasleen balorazioak?

Ikasleekin dialogo edota komunikazio egoerak izan ostean, eta haiek saioak ebaluatzeko aukerak izanik, ikasleen balorazioak analizatzeko egoera desberdinak bizi izan dira. Kasu gehienetan, ikasleek balorazio positiboak eman dizkiote saioari, bai haien iritzia gainerakoekin partekatuz eta baita ebaluazio metodoari esker haien iritzia idatziz ere. Baten batek saioen diseinua, planifikazioa edota metodologia ez du gustuko izan, eta horrek zorionez ikasleen ikuspuntu kritikoa bermatzen du eta haien iritzia azalertzeko aukeren adierazpena ere.

3.B. MAILA



ASKO DISFRUTATU DUT!
 GUZTIOK PARTE HARTU DUGU!
 IKASLEAK ERRESPETATU DITUT
 DISFRUTATU DUT, BAINA EZ ASKO
 IKASLE BATZUK EZ DUTE PARTE HARTU! IKASLE GUZTIAK EZ DITUT ERRESPETATU
 EZ DUT DISFRUTATU!
 IKASLEEK EZ DUTE PARTE HARTU! EZ DITUT IKASLEAK ERRESPETATU

Carmen eta Jorge oso onak dira biak.
 Oso ondo.
 Gustatzen zait oso kirola: sois muy buenos profesores.
 Oso ondo oso ondo.
 Oso ondo pasatu dut.
 Oso ondo.
 Gustatzen zait. Agur.
 Oso ondo. Oso ondo pasatu dut eta errespertatu dut.
 Jorge eta Carmen oso onak dira.
 Oso ondo pasatu dut.
 Oso ondo portatu naiz.
 Oso ondo pasatu dut eta Jorge eta Carmenekin super ondo pasatu dut.
 Lagunekin jolastu dut.
 *Gainerakoetan ez dago testurik edo marrazkiak dira.
 Pixka bat pasatu naiz gaizki.
Azerretu naiz orregatik ez dut oso ondo pasatu.
 Ondo pasatu dut baina _____ eta _____ battetu didate.
 Kili-kolo pasatu dut.
 *Gorririk ez dago.

(LH-ko 3.B mailako ikasleen balorazioa, 2020/02/24)

Uneoro bilatu behar ditugu ikasleen balorazioak, haien interesak eta jakin-minak ezagutzeko aukerak izan ditut eta horrek jolas askotan haien gustukoak ziren zeinbait aldaketa egin izan ditut. Geroz eta denbora gehiago ematea horrelako ekintzei, orduan eta sendoago eta finkoagoa izan da gure kalitatezko hezkuntza.

Ikasleen egoera emozionala faktore erraztatzaile edota oztopatzaile gisa

Saio bakoitzaren hasieran ikasleekin borobil bat sortu eta aurreko saioetan egindakoa gogora ekartzeaz gain, haien egoera emozionala zein psikologikoa zein den jakiteko elkarrizketa laburrak izaten ditugu. Honi esker, ikasleen egoera jakiteko aukera izan dugu eta saioan zehar honen araberako egokitzapenak egiteko aukera izan dugu. Kasu gehienetan ikasleak pozik, alai eta gogotsu etorri dira klasera eta hori faktore erraztatzaile bat izan da, baina beste batzuetan egoerak desberdinak izan dira eta saioen dinamikak eragin negatiboak pairatu ditu.

Saio guztietan bezalaxe, zelaiaren erdian elkartzen gara, eta aurreko saioen egindakoa oroitzearekin batera ikasleek nola sentitzen diren adierazten dute. Gehienak pozik dauden seinale ematen dute, eta gainera, poztasun horrek haien parte hartzean eragina izaten duela konturatu naiz. Gogotsu etorri dira gaurkoan. (Egunerokoa, 202002/17)

HASIERAKO ELKARTZEA



(Gasteizko ikastola, 2020/02/04)

“Jantokian ikaskide batekin haserretu naiz...” (LH-ko 3.mailako ikasle bat, 7.saioan, 2020/02/24)

Beraz, irakasle guztiok ikasleen egoeraz ohartu behar gara uneoro haien ongizatea helburu gisa islatuz. Geroz eta emozio positiboen agerpen handiago bat izan, orduan eta eraginkorragoak izan dira gure saioak eta kooperazioan lan egiteko nahiak sendoagoak izango dira. Gainera, ikasleen egoera emozionalei behar duten denbora eskaini zaie ikasleen ongizatea lortzeko.

Interdependentziaren agerpena

Jasotako egunerokoan ikasleen arteko interdependentzia egoerak askotarikoak izan dira. Aurrera eramandako jolas kooperatiboek esker ikasleak kide bati eragiten dion gertaera batek gainerako guztiei eragiten diela konturatu dira, eta gainera, dokumentazioari esker ohartu naiz interdependentziaren eta elkar laguntzaren artean harreman estuak daudela.

Ikasleek ikusi dute guztien parte hartzea bermatzen ez badute jolasaren helburua ez dutela lortuko. Beraz, ikasle askok etsipena sentitu arren gainerako ikasleak animatzen eta laguntzen hasi dira, guztiek euren helburua lortu ahal izateko. (Egunerokoa, 2020/02/03)

Beraz, zorionez, parte hartzaileek elkar lan egitearen onura potentzialak aztertu eta ulertu dituzte, eta gainera, konturatu dira interdependentziari esker haien arteko harremanak eta komunikazio egoerak lantzen dituztela.

Ikastetxeko baliabideen laguntza

Hainbat arrazoik ondorioztatzen dute ikastetxeak ahalbidetzen dituen baliabideen laguntzaren garrantzia. Aldez aurretik, programatutako jolas-kooperatiboak aurrera eramateko orduan baliabideen menpe egon gara, beraz, alternatiba desberdinak pentsatuta eraman behar izan dira egoera oztopatzaileei aurre egiteko. Gure kasuan, ikastetxeak dituen baliabideak anitzak eta egokiak direla azterturik, aurretik planteatutako guztia aurrera eramateko aukerak izan ditugu, programatutako diseinuan aldaketa gutxi eginez, gure oinarriak mantenduz.

Lehenengo saioari hasiera eman aurretik materiala prestatzera noa, biltegiko atea ireki eta irakasle batek nahi lituzkeen material guztiak daude, eta gainera, hauetako asko ezezagunak dira niretzat. (Egunerokoa, 2020/02/03).



(Gasteizko ikastola, material biltegia eta kiroldegia, 2020/02/03)

Beraz, irakasle gisa material eta baliabide egokiak eskura izateak lasaitasun puntu bat adierazten digu, horrela planteatu ditugun jolas guztiak aurrera eramateko aukerak izan ditugu eta aurretik genituen zalantza zein kezka guztiak kiroldegitik kanpo gelditu dira. Eskertzekoa eta baloratzekoa izan da baliabide guzti hauen gertutasuna.

Intzidente kritikoen aurrean erabakiak egokiak izan dira?

Proposamen didaktikoan zehar intzidente kritiko ugari bizi izan ditut era egokia ikusi dut hauei emandako erantzunen inguruko emaitzak aztertzea. Intzidente kritikoen aurrean nire erantzunak azkarrak izan dira, baina egokiak? Nire ustez, hartu ditudan erabaki gehienek saioen inguruan ondorio positiboak helarazi dituzte, baina beste batzuei irtenbide egoki bat emateko zailtasunak izan ditut. Hala ere, informazioa aztertuz, argi

ikusten da arazoan aurrean erantzun azkarrak sortzeko gaitasun handia izan dudala eta inguruan ditudan baliabide desberdinei esker egoerei aurre egiteko aukera ugari adierazi ditudala. Hori bai, hartutako erabaki askok nire buruan zalantza handiak sortu dituzte, eta batez ere, lehenengo egunetan hartutako erabakiak ez ziren oso egokiak izan nire ustez.

Osterantzean, egoera zail baten aurrean erabaki azkar eta inklusibo bat hartu behar dut edota egoera dagoen bezala utzi. Momentu honetan, denboraz justu xamar goazela ikusita egoera pasatzen utzi dut eta jarduera burutu dugu, baina egoera motorraren garapenean zehar nire buruan zalantza asko sortu zaizkit eta ezinegon egoera batean murgildu naiz. (Egunerokoa, 2020/02/03)

Egunero intzidente kritiko desberdinei aurre egiteko prest egon behar gara eta horretarako praktikari esker eskuratu ditugun trebetasunetan oinarritu gara. Hori bai, intzidente kritiko gehienei erantzun egokia eman arren beste batzuk kolokan gelditu ziren, eta horrek kalitatearen hezkuntza eteten du.

Garaipena vs Kooperazioa

Eskuratutako dokumentazio guztiari esker, ondorioztatu dezakegu ikasleek ez dutela irabazteko grina indibidualik adierazi. Talde lanean aritzearen ondorioz ikasleak konturatu dira guztien parte hartzea ezinbestekoa zela irabazteko, beraz, modu kooperatiboan irabazteko ereduak ulertu dutela esan genezake.

Irabazi nahi dute, baina ez bakarka. Elkarrekin ari dira jolasean eta disfrutatzen ari direla ematen du. Haien eskuetan dago jolasaren dinamika, baina haien arteko harremanetan murgiltzen ari dira, elkarren arteko garaipena eskuratuz. (Egunerokoa, 2020/02/10)

Ikasleek Gorputz Hezkuntzaren egunerokotasunean gehien bat lehiakortasuna bultzatzen dituzten jolasak jasotzen dituztela jakin arren, gai izan dira normaltasunez kooperazioan aritzeko. Argi dago, ikasle guztien parte hartzea edota gogoak ez direla berdinak izan baina denek kooperazioaren inguruan sortzen diren garaipen nahiak adierazi dituzte.

Kooperazioa generoaren arabera

Esku hartze honen praktikan bizitako esperientziei esker ondorio eta emaitza desberdinak ateratzen ditugu. Egunerokoaren kasuan, informazioa irakurriz eta aztertuz nesken eta mutilen arteko kooperazio maila desberdinak ikusi dira. Orokorrean neskek

jarrera kooperatiboak eta elkarlaguntza jarraibideak adierazteko erraztasun handiagoa erakutsi dute. Gainera, taldekatzeak egiterakoan ez dute arazorik adierazten klaseko edozein kideekin jartzeko. Bestalde, mutilen kasuan, kooperazioan oinarritutako jolasak lehiakortasunean murgiltzeko nahiak adierazten dituzte uneoro eta taldekatzeak egiterakoan talde mugatuak errespetatzen dituzte.

Taldekatzeak egiterakoan neskek ez dituzte inolako arazorik adierazten, baina mutilen kasuan hauetako askok desadostasun sentipenak agerian dituzte, ez dute lankide zehatz batzuekin jolastu nahi, ez dute kooperazioaren aldeko apusturik egin nahi... Egoera zail baten aurrean nago, mutilen jarreraren zergatiak ulertu ezinik. (Egunerokoa, 2020/02/18).

“Bakarrik jolastea nahiago dut, eta ez taldean” (LH-ko 4.mailako ikasle bat, mutila, 6.saioan, 2020/02/18)

Beraz, generoen arteko jarrera desberdintasun hauek izan dira nabarmenenak, baina esan beharra dago horrelako jarrerak 4.mailako ikasleekin izan direla ohikoagoak, 3.mailan, aldiz, elkarlaguntza eta kooperazio mailak oso parekatuak egon dira. Hala ere, horrelako jarrerak puntualak izan direla adierazi beharra dago, orokorrean jarrera egokiak azaldu dituzte.

Planteatutako ikaskuntza-zerbitzuak inklusioa bultzatu du?

Planteatu diren jolas eta jarduera gehienetan ikasle guztiek parte hartu dute eta ikas-talde guztiei planteatu zaizkien helburu asko lortu dituzte. Honekin batera, hasiera batean parte hartze urria zuten ikasleak eta taldetik baztertuak sentitzen zirenek haien parte hartzea bermatu dute eta gainerako kideekin zituzten harremanak indartzeko aukera izan dute.

Saioak aurrera doaz eta esku-hartzearen hasieran taldean parte hartze gutxi zuten ikasleak taldearen parte sentitzen direla ematen du, haien lana ezinbestekoa da eta horretaz konturatzen ari dira gainerako ikasleak. (Egunerokoa, 2020/02/18)

Argi dago, zerbitzuaren eragina ikusarazteko denbora-tartea oso txikia dela, baina horrelako pausu ttipiei esker inklusibitatearen aldeko apustua lortuko dugu. Ikasleak aukera berdinak izan dituzte jolas kooperatiboek esker eta gainera guztien parte hartzea berebiziko garrantzia zuen taldearen ikaskuntza prozesurako eta gozamenerako.

Zeintzuk izan dira ikasleek eskuratu dituzten rolak?

Zerbitzuan bizi izandako esperientzia eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan zehar ikasleek rol desberdin ugari eskuratu dituzte. Ikasleei emandako autonomia eta askatasunaren poderioz, jolasen helburuak lortzeko eta erronka kolektiboei aurre egiteko rol desberdinen banaketa sortu da.

Ikasle batzuk parte hartzaileagoak direla ikusten da, beste batzuk besteen esanak jarraitzen dituzte, eta ikasle askok ideia berriak azaleratzen dituzte taldearen onurarako. Baina talde bakoitzak rol banaketa desberdin bat aurkezten du, eta horren aurrean jolas kooperatibo batek hartzen duen aniztasun eta aberastasuna baloratzekoa da. (Egunerokoa, 2020/02/10)



(Gasteizko ikastola, 3.mailako ikasleak, 2020/02/10)

Beraz, lehiakortasuna edota ikasleen arteko aurkaritza sustatzera bideratuta dauden jolasetan ez bezala, jolas kooperatiboan ikasleen arteko rolen banaketa argia da eta gainera ikasle guztien parte hartzea bermatzen du honek. Gainera, jasotako informazio guztia aztertuz, ikasleak euren kabuz gai izan dira rol desberdinak jasotzeko eta hauek modu eraginkorrean praktikan jartzeko.

Ikasleen ikuspuntu kritikoa bermatzeko garaia

Jolas kooperatiboek dakartzaten onura hezitzaileekin batera, nire esku hartzean ikasleen ikuspuntu kritikoa lantzeko helburua nuen. Horretarako, saio bakoitzaren amaieran ikasleek saioaren ebaluazioa egiteko aukera zuten, haien iritzia plazaratzeko. Era berean, amaieran ikasleen jarreraren inguruan hausnartzen genuen eta ikasleak oso parte hartzaileak zeuden. Beraz, esan genezake ikasleek haiek ikuspuntu kritikoa garatzeko eta ideia berriak azaleratzeko gaitasunak berpiztu dituztela

“ Azkenengo jolasa ez zait asko gustatu, aldatzea hobeto”. (LH-ko 4.mailako ikasle bat, 2020/02/11)

“Nire ustez nire laguna ez da ondo portatu, korrika egon da eta ilaran egon garenean ez du ordena alfabetikoa errespetatu”. (LH-ko 3.mailako ikasle bat, 2020/02/24)

Laburbilduz, eta azken emaitza honi amaiera emateko, Lehen hezkuntzako ikasleen ikuspuntu kritikoa agerpen argi izan du nire saioetan eta ikasle askok iritzia adierazteko aukera izan dute, hori bai, askotan denbora faltaren ondorioz ideien partekatze oso interesgarri asko bertan behera utzi behar izan dugu, baina niretzat ikasleen iritziak entzutea esku-hartzearen momenturik politenetariko bat izan da.

Amaitzeko, emaitzen analisiak orokorrean aztertu ostean, jolas kooperatiboetan eta inklusioan oinarritutako ikaskuntza-zerbitzu batek duen indarra agerian gelditu da eta lau asteko zerbitzu bat izan arren ikasleen nahiak eta haien elkar laguntzarako desioak indar hezitzaile handiko emaitza positiboetan bilakatu dira.

3. ONDORIOAK

3.1. EZTABAIDA

Emaitzen analisisa oinarri gisa erabiliz eta lanaren emaitzak marko teorikoan landu diren ekarpen akademikoekin bat egiteko helburuarekin, hurrengo eztabaida honetan lortu ditudan emaitzak adituen esanekin alderatuko ditut, lanaren osotasuna lortzeko. Horretarako emaitzen bidez lortutako ideia garrantzitsuenak azpimarratu eta teoriarekin alderatuko dira.

Hasteko, emaitzei esker nire zerbitzuak Tapiak (2010) alde zehatzetik zehazten dituen ezaugarriekin bat egin dute. Besteak beste, protagonismo aktiboa lortu dut eta ikasleen adinei eta gaitasunei egokituak izan diren jarduera zehatzei esker ikasi dut, eta gainera, proposatu ditudan jolas kooperatiboen bitartez ikasleek ikasi dute. Baina honekin batera, Tapiak (2010) aurrera eramaten duen ikerketaren emaitzak alderatuz, bietan ikasleak zerbitzuaren parte sentitu dira eta horri esker esku-hartzean aktiboki parte hartzeko aukera izan dute.

Era berean, ikaskuntza-zerbitzuaren emaitzekin jarraituz, ikaskuntza zerbitzu baten garapenak hurrengo hiru etapak aurrera eramaten ditu: prestakuntza, gauzatzea eta ebaluazioa (Battle, 2015). Nire zerbitzura hurbilduz eta emaitzak aztertuz, hiru garapen etapa hauek jarraitu dira. Hasieran, gainerako hezitzaileekin proiektua partekatu eta

aurkeztu zaie, ondoren proiektua prestatu, gauzatu eta itxi egin da, eta azkenik, egindako proiektuak sortutako emaitzak aztertu dira.

Honekin batera, Ainscowen (2003) ikerketan oinarrituz, inklusioa laguntza, parte-hartzea eta ikasle guztien errendimendua da, beraz, ekintza guztiek hiru ardatz hauen inguruan lan egin beharko dute. Honen harira gure emaitzei esker ikasleen parte hartzea, elkarren arteko laguntza eta ikasle guztien errendimendua bultzatu dituzten egoerak ikusi eta aztertu dira, gainera honi esker ikasleak zerbitzuarekin bat egin dute eta zerbitzuaren parte sentitu dira, Ainscowenen baieztapenekin bat eginez.

Bestalde, aurrera eramandako zerbitzuari esker, Ainscow-en (2003) ikerketan bezala, ikasleek berezko interesa adierazten dute interdependentziaren inguruan. Egindako jolas kooperatiboek esker ikasleak kide bati eragiten dion gertaera batek gainerako guztiei eragiten diela konturatzen dira. Beraz, zorionez, badirudi parte-hartzaileek elkar mendekotasunean oinarritutako lan-plan ororen onura potentzialak ulertu eta hauteman dituztela.

Velázquezen (2004) ondorioen artean, honako hau nabarmentzen da: erronka gisa planteatutako proposamen kooperatiboek bidez, ikasleek taldean lan egiteko duten gaitasuna hobetzen da, beren gizarte-trebetasunak garatzen dira, eta mugimenduzko jardunaren bidez esperientzia arrakastatsuak izateko aukera ematen die guztiei. Horrek, era berean, autoestimua handitzen du. Beraz, nire emaitzekin alderatuz, esan genezake datuen arteko berdintasunak agerikoak direla, batez ere, ikasleek eskuratu dituzten gizarte-trebetasunetan jarriko nuke atentzioa, komunikazio egoera anitzen ondorioz.

Ildo beretik, aurrera eramandako jolas kooperatiboek parte-hartzaileengan ez dute irabazteko grina piztu, baizik eta ematen duen dinamismoak edo dibertsioak nabarmen gaitzen du emaitzarekiko interesa. Beraz, ondorioztatu dezakegu Velázquezek (2004) egindako ikerketarekin alderatuz berdintasun ugari partekatzen ditugula.

Argi dago, lau asteetan zehar garatuz joan naizen ikaskuntza-zerbitzu honetan ondorio zehatzak ateratzea zaila dela, baina adituen ikerketa desberdinekin alderatuz lortu diren emaitzak oso antzekoak dira, nahiz eta denbora tartea askoz urriago izan. Orduan, bukatzeko, ondorioztatu dezakegu, jolas kooperatiboek eragiten dituzten ondorio hezitzaileek denbora tarte laburretan eraginak sortzen dituztela ikasleengan, eta horrek egindako ikaskuntza-zerbitzuari sinesgarritasuna eta osotasuna ematen dio.

3.2. BALORAZIOA

Lanari osotasuna ematen jarraitzeko, idazpuru honetan, Gradu Amaierako Lan honen hasierako helburuen betetze-maila aztertzeko unea iritsi da, horretarako lanaren amaierako balorazio orokor bat egingo da.

Ikaskuntza-zerbitzuaren eredu pedagogikoa deskribatzea zen lan honen helburuetako bat, eta zenbait jarduera garatuz, eredu pedagogiko honen azalpena eta azterketa gauzatu ahal izan da, hala nola, eredu horren berrikuspen bibliografiko zehatza eginez eta gai horretan adituak diren pedagogo zein profesional desberdinen lanak edota artikuluak bistaratu. Aztertutako esparru teorikoak ikaskuntza-zerbitzuari buruzko alderdien ikuspegia eskaintzen digu, hala nola kontzeptualizazioa, beste praktika batzuekiko desberdintasunak, ikuspuntu pedagogikoa, mota horretako proiektu baten etapak edo ezaugarri nagusiak eta onurak. Ez hori bakarrik, lanketa teorikoan ere, hezkuntza inklusiboaren aldeko aztertze prozesu bati esker eta jolas kooperatiboek honetan izan dezaketen eragina aztertuz, ikaskuntza-zerbitzuek eskaintzen dituzten bide berritzaile eta esanguratsuen ibilbideak begiztatu ditugu.

Era berean, dagoeneko garatuta dauden esperientzien azterketaren bidez, ikus dezakegu eredu pedagogiko hau metodologia berritzaile bat baino zerbait gehiago dela: ezagutzen ikaskuntza gainerakoekin zerbitzuarekin integratzea eta gure ikasle arduratsuak izatea ahalbidetzen digun proposamena da. Azken finean, berrikuspen teoriko horrek, proiektua oinarritzeaz gain, hezkuntza-ekintzari buruz hausnartzeko eta irakasle gisa dudak ikuspegi pertsonala aberasteko aukera eman dit.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleekin praktikan jarri den proiektua planifikatu, garatu eta ebaluatzeko, Lehen hezkuntzako Graduan zehar eskuratutako ezagutzak erabili dira azterlan honetan. Proposamen didaktikoa ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan aktiboki parte har dezaten eta inguruko benetako beharrekiko solidarioak izaten ikas dezaten sortu da, haien ikaskuntzaren protagonista bihurtuz, elkarrekiko errespetuzko balioak partekatuz.

Jolas kooperatiboen gaia aukeratuta, modu praktikoa aztertu dira hauen zenbait adierazpen: informazioa bilatu da eta prozesatu egin da, ondorengo zerbitzuan transmititzeko. Beraz, ikaskuntza-zerbitzuaren oinarritzeko ezaugarrietako bat eta proiektuarekin batera egiten duen helburu bat bete dira aldi berean: esperientziatik ikastea, hau da, eginez ikastea. Eta ondorioz, irakasle gisa egin dudak lana ez da bide bakarra izan ikasleek ezagutza bereganatzeko, duela zenbait urte hezkuntzan ohikoa zen bezala.

Planteatutako beste helburu bat zen ulertzea zein garrantzitsua den irakasle batentzat ikasleak motibatuko dituzten metodo berritzaileak aukeratzea. Gogoratu behar da esperientzia horretan parte hartzen duen taldea hezkuntza- eta kultura-aniztasun handiko ikasleek osatzen dutela. Hala ere, egindako jarduerekin kohesio handiagoa nabaritu da, segur aski guztion artean erronka komun bati aurre egiteagatik eta jolas kooperatiboen barne-helburuak lortzeagatik, eta taldean lan egiteko gaitasuna hobetu dute. Zalantzarik gabe, ikasle guztien topaketak elkar aberastea ekarri du: ikasleen pentsaera kritikoa eta elkartasun-ekintzetan duten inplikazioa sustatu dira.

Bestalde, Gasteizko ikastetxearen izenean ikaskuntza-zerbitzuan parte hartu dugun ikasle guztiok balorazio orokor bat jaso dugu. Bertan, esku-hartzearen arrakasta maila ebaluatzearekin batera haien iritzi akademiko eta profesionalak plazaratu dituzte. Horretarako 17 galderaz osatutako galdetegi bat burutu dute non erantzun gehienak positibok izan diren, eta gainera, galdetegiaren amaieran bizi izandako esperientzia bi adjektiboekin deskribatu dute: aberasgarria eta beharrezkoa. Era berean, balorazio-galdetegi osoa *III. Eranskinak* atalean aurki dezakezue.

Unibertsitateek gero eta gehiago sartzen dituzte hezkuntza-testuinguru desberdinetan (irakasgaiak, praktikak eta practicum-a) zerbitzatzeko irakaskuntza-proposamenak, eta ezin da bestela izan, etorkizun hurbilean, gaur egungo unibertsitate-ikasleak izango baikara ikasgelan horrelako esperientziak sustatzeko arduradunak. Azken finean, Gradu Amaierako Lan honen hasierako helburuak lortu direla ikusita eta lan honi amaiera eman aurretik, proiektu honen gidari, laguntzaile eta tutore izan dudana Ana Luisa López-i eta ikastolaren barne dagoen komunitate osoari nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet, zuen laguntzarik gabe guzti hau ezingo litzateke burutu, mila esker benetan.

3.3. MUGAK ETA BERRIKUNTZAK

Gradu Amaierako Lanari amaiera emateko asmoz, orokorrean lortu diren ondorioak edota emaitzak positiboak izan arren ikaskuntza-zerbitzuaren garapenean zehar hobetzeko zenbait esparru aztertuko ditut, batez ere, lan honek pairatu dituen mugetan fokoa jarritz. Baina hori gutxi balitz, mugak aztertu ostean lan honi esker piztu edo ireki daitezkeen bide berrien analisia egingo da.

Hasteko, nire lanaren muga artean, Gorputz Hezkuntzako saioetan ikasleek jarraitzen zuten egiturarekin zerikusia du, lehia-jolasaren eredu bati jarraitzen zioten eta horrek jolas kooperatiboen inguruan zituzten iritziak edota jakintzak kaltetzen ditu. Alegia, ikasle batzuen kasuan, kooperazioan irabazteko aukera indibidualak ez zeudela ikusita,

hasieran haien motibazioa txikia zen, hala ere, jolasen eta dinamiken bitartez ikasleen motibazioaren egoera aldatzea lortu genuen.

Era berean, zerbitzuan zehar izan dudan buruhausterik nagusiena denboraren kudeaketa izan da. Saioak ordu betekoak ziren, baina hala ere, saio gehienetan denbora kudeatzeko arazoak izan ditut. Gainera, saioaren erdialdean kiroldegitik atera behar ginen patioan kokatuta zegoen zelaira jotzeko, eta horrek jolasaren dinamika apurtzeaz gain, planifikatuta nituen jolas guztien denboralizazioan eragina izan zuen. Hori gutxi balitz, behin kiroldegitik irteterakoan eguraldiaren egoera dela medio, ikasleek jolasteko nahiak baldintzatzen zituen, hau da, eguraldi eta temperatura txarra egiten zuen egunetan ikasleek parte hartzeko gogo gutxiago zuten, nahiz eta zelaia goialdean estalita egon. Beraz, hurrengorako nire egoera motorren denboralizazioa hobetu beharko dut.

Bukatzeko, nire ustez, ezinbestekoa da unibertsitateko ikasleak errealitatera hurbiltzea eta komunitateari zerbitzua ematea. Nire kasuan, horrelako ikaskuntza baten falta sumatu dut, ikaskuntzaren bidez komunitatera hurbilduko dena, ikaskuntza eraginkorra baita eta curriculumarekin oso lotuta baitago. Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleek ikaskuntzei esanahi eta aplikazio handiagoa emango dieten hainbat irakasgaitako praktiken bidez gehiago bultzatu daitezke ikaskuntza-zerbitzuen metodologia, eta, hala, curriculum-edukiak garatu ahal izango dira; gainera, eredu pedagogiko honek bat egiten du konstruktibismoaren, pedagogia aktiboaren, ikaskuntza kooperatiboaren eta metodologia aktiboaren eskaerarekin.

Ikaskuntzak jasotzeko ezinbestekoa da zerbitzu inklusiboaren beharra, kasu honetan jolas kooperatiboaren bitarteko proiektu bat izan da, non ikasleen arteko harremanak eta elkar laguntza oinarri izan ditudan. Baina, hala ere, beste hainbat gai jorratu daitezke eredu pedagogiko honi esker eta aldebiko ikaskuntzak jasotzearekin batera etorkizuneko gizartean onuragarriak izango diren jarrerak, egoerak eta bizipenak indartuko dira. Mila esker luzatu dizkidazuen aukerengatik.

4. BIBLIOGRAFIA

- Ainscow, M. (2003). Desarrollo de sistemas educativos inclusivos. Gobierno Vasco, *Las respuestas a las necesidades educativas especiales en una escuela vasca inclusiva* (pp.19-36). Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Battle, R. (2015). Guía práctica de aprendizaje-servicio. *Proyecto Social*, 4-34.
- Blanco, R. (2006). La equidad y la inclusión social: uno de los desafíos de la educación y la escuela hoy. *REICE. Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 4(3), 1-15.
- Fernández-Rio, J., & Méndez-Giménez, A. (2016). El aprendizaje cooperativo: Modelo pedagógico para Educación Física. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (29), 201-206.
- Foro Educativo (2007). *La inclusión en la educación. Cómo hacerla realidad*. Foro Educativo.
- López Vélez, A. L. (2018). *La escuela inclusiva. El derecho a la equidad y la excelencia educativa*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitapen Zerbitzua/Servicio Editorial.
- Omeñaca, R. y Ruiz, J. V. (1999) *Juegos cooperativos y Educacion Fisica*. Paidotribo.
- Orlick, T., & López, M. M. (2002). *Libres para cooperar, libres para crear (nuevos juegos y deportes cooperativos)*. Editorial paidotribo.
- Parra, C. (2010). "Educación inclusiva: un modelo de educación para todos." *ISEES: Inclusión Social y Equidad en la Educación Superior* 8 : 73-84.
- Pujolàs, P. (2012). Aulas inclusivas y aprendizaje cooperativo. *Educatio Siglo XXI*, 30(1), 89- 112.
- Rubio, L. (2007). *Aprendizaje y servicio solidario*. *Zerbikas fundazioa*, 0. Zerbikas Fundazioa.
- Tapia, M. N. (2010). La propuesta pedagógica del "aprendizaje-servicio": una perspectiva Latinoamericana. *Revista científica TzhoeCoen*, 3(5), 23-44.
- Valcarce, M. (2011). De la escuela integradora a la escuela inclusiva. *Innovación Educativa*, 21, 119-131.

Velázquez, C. (2004). Las actividades físicas cooperativas. Una propuesta para la formación de valores a través de la educación física en las escuelas de Educación Básica. Secretaría de Educación Pública.

5. ERANSKINAK

I. Eranskina. PROPOSAMENAREN PLANGINTZA

1.SAIOA 3. MAILAKO IKASLEAK (A ETA B TALDEAK)

1. JARDUERA. HASIERAKO ELKARTZEA.

Taldekatzeta: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Nire burua aurkeztea.
- Ikasleei lehenengo saioan eta gainerakoetan egingo denaren inguruko informazioa partekatu.

Materiala: ez da behar.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: Ikasleei nire aurkezpen labur bat egingo diet, eta horrekin batera, hurrengo asteetan aurrera eramango ditugun saioen helburuak modu simple batean azalduko dizkiet, jolas edo jardueren zergatiak ulertzeko.

2. JARDUERA. UZTAILEN DANTZA.

Taldekatzeta: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen arteko gertutasuna eta harremanak sendotzea.
- Ikasle guztiek parte hartzea eta eliminaziorik ez egotea.
- Musikaren erritmora mugimendua gauzatzea.

Materiala: uztailak eta musika.

Denbora: 15 minutukoa.

Garapena: Zelaian zehar kolore desberdinetako uztailak egongo dira. Hasieran musika entzungo dute eta musikaren erritmora mugituko dira ikasleak. Baina,

bat-batean musika geldituko da eta ikasleek ahalik eta azkarren uztailean sartuko dira. Ez da inor eliminatuko, baina jolasean aurrera egin ahala uztailean sartzea txikiagoa izango da eta azkenean ikasle guztiak hiru uztailean sartzea lortu behar dute. Helburua lortuz gero guztion artean txalotuko dugu.

3. JARDUERA. PUXIKEN GARRAIOA.

Taldekatzeak: hirunaka eta launaka.

Helburua:

- Ikasleek erronkari aurre egiteko gai izatea.
- Kooperazioa eta lankidetzari esker taldean jardutea.
- Jolasaren bidez gorputz atal desberdinak ikastea.

Materiala: puxikak.

Denbora: 15 minutukoa.

Garapena: hasieran ikasleak hirunaka jarriko dira eta hirukote bakoitzari puxika bat banatuko saio. Behin hirukoteak zelaiaren alde batean kokatuta daudela puxika zelaiaren kontrako aldera garraiatu behar dute. Baina, irakasleak esaten duen gorputz atalarekin bakarrik ukituko dute baloia. Hauek izango dira gorputz atalak: burua, lepoa, bizkarra, aldaka, ipurdia, belauna eta orkatila. Era berean, puxika erortzen bazaie berriro dagoekien gorputz atalean jarri beharko dute eta ibilbidearekin jarraitu.

4. JARDUERA. UZTAILAREN BIDAIA.

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen arteko lankidetzari esker uztailean garraiatzea

Materiala: uztaileak.

Denbora: 10 minutukoa.

Garapena: ikasleek zutik eta eskutik emanda borobil handi bat osatuko dute, eta eskuak askatu gabe uztaileak garraiatu behar dituzte ikasle batetik bestera. Lortuko

al dute bira oso bat ematea?

5. JARDUERA. EBALUAZIOA ELKARREKIN

Taldekatzeta: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen egindako jolasak ebaluatzea.
- Irakasleak ikasleak ebaluatzea ikastetxeko betebeharrak kontuan hartuz.

Materiala: saioaren ebaluazio txostena eta zigilua.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: hasteko, ikasleek irakasleari feedbacka emango diote, hau da, irakasleak proposatutako jolasak baloratuko dituzte. Horretarako irakasleak hainbat galdera botako dizkie ikasleei:

- Nola sentitu zarete saioan zehar?
- Zer izan da gehien gustatu zaizuen? Eta gutxien?
- Zer aldatuko zenukete?
- Uste duzue modu parte hartzaile eta kooperatibo batean lan egin duzuela?

Honen ostean, ikasleek saioa orokorrean baloratuko dute, horretarako semaforo bat egongo da eta ikasleek nola sentitu direnaren arabera kolore gorria, laranja edo berdea jarriko dute. Bukatzeko, klasera iritsi aurretik ikastetxeko arauak errespetatu dituzten ikasleei gometxa jarriko zaie, tutoreek haien jarreraren berri izateko.

2.SAIOA

4. MAILAKO IKASLEAK (A ETA B TALDEAK)

1. JARDUERA. HASIERAKO ELKARTZEA.

Taldekatzeta: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Nire buru aurkeztea.
- Ikasleei lehenengo saioan eta gainerakoetan egingo denaren inguruko

informazioa partekatu.

Materiala: ez da behar.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: Ikasleei nire aurkezpen labur bat egingo diet, eta horrekin batera, hurrengo asteetan aurrera eramango ditugun saioen helburuak modu simple batean azalduko dizkiet, jolas edo jardueren zergatiak ulertzeko.

2. JARDUERA. BALOIA AIRETIK, BAINA GURE IZENA AURRETIK!

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen arteko kooperazioari esker elkar ezagutzea.
- Ikasleen esku-begiko koordinazioan trebatzea.
- Ikasle guztiak talde eta helburu baten parte direla sentiaraztea.

Materiala: baloi bakarra.

Denbora: 15 minutukoa.

Garapena: Ikasleak zelaian zehar banatuko dira eta ikasle guztien parte hartzeari esker ikasleen helburua baloian airean mantentzea da. Hasiera batean, ikasleek soilik baloia gorantz kolpatu beharko dute, baina jolasak aurrera egin ahala aldatuz joango da, eta hasieratik jarritako erronka zailagoa izango da.

Egingo diren aldaerak:

1. Ikasleek baloia kolpatu baino lehen beste ikasle baten izena esan beharko dute, beraz, izendatuta izan den ikaslea baloia kolpatzen hurrengo izango da.
2. Baloia jotzerakoan soilik euren esku trebea erabiliko dute.
3. Azkenik, orain arte erabiltzen ari diren esku trebea aldatuko dute.

3. JARDUERA. ORIENTAZIOAN ADITUAK.

Taldekatzea: lauko taldeak egingo dira

Helburua:

- Ikasle guztiak elkarrekin eta kooperazioan jolastea eta ikastea.
- Ikasle guztiak talde eta helburu baten parte direla sentiaraztea.
- Espazioan zehar orientatzeko eta mugitzeko ahalmenak eskuratzea.

Materiala: ikasleen begiak estaltzeko zapiak.

Denbora: 20 minutukoa.

Garapena: Ikasleak taldeetan antolatu ostean, talde bakoitzak kolore bateko kono bat aukeratuko du eta horren aurrean kokatuko da ilara bat osatuz. Ilararen aurrekaldean dauden hiru ikasleak begiak estaliko dituzte eta atzealdean dagoen ikaslea gidaria izango da. Beraz, gidariari esker zelaiaren beste aldean dagoen kolore berdineko konora ailegatu behar dira, hori bai, zelaian zehar dituzten traba edo material guztiak oztopatu behar dituzte.

Bestalde, gidariak lau jarraibide emango dizkio aurrean dituen ikasleari, eta gidariak emandako seinale hori aurrean dagoen ikasleari ailegatu behar zaio.

1. Eskuinera biratzea: aurreko ikaslearen sorbaldaren eskuinaldean kolpatu.
2. Ezkerrera biratzea: aurreko ikaslearen sorbaldaren ezkerrean kolpatu.
3. Gelditzea: aurreko ikaslearen sorbalda bi eskuekin kolpatzea.
4. Aurrera joateko: aurreko ikaslearen belarriak ukitzea.

Behin ibilbidea eginda, rolak aldatuko dira.

4. JARDUERA. ZUZENDARIA.

Taldekatzea: lauko taldeak egingo dira

Helburua:

- Ikasle guztiak elkarrekin eta kooperazioan jolastea eta ikastea.
- Ikasle guztiak talde eta helburu baten parte direla sentiaraztea.
- Sormena martxan jartzea eta erritmo desberdinak ezagutzea.

Materiala: ez da behar.

Denbora: 15 minutukoa.

Garapena: Ikasle guztiak zutik daudela borobil handi bat osatuko dugu. Behin hori eginda, ikasle bat kiroldegitik irtengo da, beraz, momentu horretan borobilean jarrita dauden gainerako ikasleen artean zuzendari bat aukeratuko dute. Ondoren, kanpoan dagoen ikaslea bueltatuko da eta borobilaren erdian kokatuko da. Orduan, erdian dagoen ikaslea konturatu gabe, zuzendaria erritmo batekin hasiko da (txaloeekin, hankekin...) eta gainerako ikasleak bere erritmoa jarraituko dute. Beraz, barruan dagoen ikaslea zuzendaria nor den jakin beharko du gainerako ikasleak erritmoz aldatzen duten bitartean.

5. JARDUERA. EBALUAZIOA ELKARREKIN.

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen egindako jolasak ebaluatzea.
- Irakasleak ikasleak ebaluatzea ikastetxeko betebeharrak kontuan hartuz.

Materiala: saioaren ebaluazio txostena eta zigilua.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: hasteko, ikasleek irakasleari feedbacka emango diote, hau da, irakasleak proposatutako jolasak baloratuko dituzte. Horretarako irakasleak hainbat galdera botako dizkie ikasleei:

- Nola sentitu zarete saioan zehar?
- Zer izan da gehien gustatu zaizuen? Eta gutxien?
- Zer aldatuko zenukete?
- Uste duzue modu parte hartzaile eta kooperatibo batean lan egin duzuela?

Honen ostean, ikasleek saioa orokorrean baloratuko dute, horretarako semaforo bat egongo da eta ikasleek nola sentitu direnaren arabera kolore gorria, laranja edo berdea jarriko dute. Bukatzeko, klasera iritsi aurretik ikastetxeko arauak errespetatu dituzten ikasleei gometsa jarriko zaie, tutoreek haien jarreraren berri

izateko.

3.SAIOA

3. MAILAKO IKASLEAK (A ETA B TALDEAK)

1. JARDUERA. HASIERAKO ELKARTZEA.

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleei saioan egingo denaren inguruko informazioa partekatu.

Materiala: ez da behar.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: gaurko saioan egingo denaren inguruko informazioa emango zaie ikasleei, honi esker saioan zehar egingo diren jarduera guztiak ezagutuko dituzte.

2. JARDUERA. IBAIA ZEHARKATU.

Taldekatzea: lau taldeak egingo dira

Helburua:

- Ikasleek kooperazioan jolasaren helburua lortzea.
- Oreka lantzea.
- Ikasle guztien lana baloratzea.

Materiala: arroken irudia errepresentatzen dituzten objektuak.

Denbora: 15 minutukoa.

Garapena: zelai oso ibaia izango da, beraz, ikasleek dituzte objektuekin ("arrokak") ibaian zehar mugitu behar dira, erori gabe noski. Taldeka mugitzen joango dira eta azkenean talde guztien arrokak elkartzeko eskatuko zaie. Behin hori eginda jolasaren helburu lortuko dute.

3. JARDUERA. ORIENTAZIOAN ADITUAK.

Taldekatzea: lau taldeak egingo dira

Helburua:

- Ikasle guztiak elkarrekin eta kooperazioan jolastea eta ikastea.
- Ikasle guztiak talde eta helburu baten parte direla sentiaraztea.
- Espazioan zehar orientatzeko eta mugitzeko ahalmenak eskuratzea.

Materiala: ikasleen begiak estaltzeko zapiak.

Denbora: 20 minutukoa.

Garapena: Ikasleak taldeetan antolatu ostean, talde bakoitzak kolore bateko kono bat aukeratuko du eta horren aurrean kokatuko da ilara bat osatuz. Ilararen aurrekaldean dauden hiru ikasleak begiak estaliko dituzte eta atzealdean dagoen ikaslea gidaria izango da. Beraz, gidariari esker zelaiaren beste aldean dagoen kolore berdineko konora ailegatu behar dira, hori bai, zelaian zehar dituzten traba edo material guztiak oztopatu behar dituzte.

Bestalde, gidariak lau jarraibide emango dizkio aurrean dituen ikasleari, eta gidariak emandako seinale hori aurrean dagoen ikasleari ailegatu behar zaio.

1. Eskuinera biratzea: aurreko ikaslearen sorbaldaren eskuinaldean kolpatu.
2. Ezkerrera biratzea: aurreko ikaslearen sorbaldaren ezkerrean kolpatu.
3. Gelditzea: aurreko ikaslearen sorbalda bi eskuekin kolpatzea.
4. Aurrera joateko: aurreko ikaslearen belarriak ukitzea.

Behin ibilbidea eginda, rolak aldatuko dira.

4. JARDUERA. BANKUAN ORDENATZEN

Taldekatzea: talde osoa elkarrekin.

Helburua:

- Ikasle guztiak elkarrekin eta kooperazioan jolastea eta ikastea.
- Ikasle guztiak talde eta helburu baten parte direla sentiaraztea.
- Oreka lantzea.
- Hitzik gabeko komunikazioan trebatzea.

Materiala: bankuak

Denbora: 10 minutukoa.

Garapena: ikasleak bankuen gainean kokatuko dira eta hitz egin gabe altueraren arabera ordenatu behar dira, hori bai, ezin dira bankutik erori.

5. JARDUERA. EBALUAZIOA ELKARREKIN.

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen egindako jolasak ebaluatzea.
- Irakasleak ikasleak ebaluatzea ikastetxeko betebeharrak kontuan hartuz.

Materiala: saioaren ebaluazio txostena eta zigilua.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: hasteko, ikasleek irakasleari feedbacka emango diote, hau da, irakasleak proposatutako jolasak baloratuko dituzte. Horretarako irakasleak hainbat galdera botako dizkie ikasleei:

- Nola sentitu zarete saioan zehar?
- Zer izan da gehien gustatu zaizuen? Eta gutxien?
- Zer aldatuko zenukete?
- Uste duzue modu parte hartzaile eta kooperatibo batean lan egin duzuela?

Honen ostean, ikasleek saioa orokorrean baloratuko dute, horretarako semaforo bat egongo da eta ikasleek nola sentitu direnaren arabera kolore gorria, laranja edo berdea jarriko dute. Bukatzeko, klasera iritsi aurretik ikastetxeko arauak errespetatu dituzten ikasleei gometsa jarriko zaie, tutoreek haien jarreraren berri izateko.

Jakinda azkenengo saioa dela, jolas kooperatiboen eta inklusibitatearen aldeko jarrerak bermatzeko azalpen txiki bat emango diegu ikasleei, etorkizunean lankidetzan eta modu inklusibo batean jarduteko.

4.SAIOA

4. MAILAKO IKASLEAK (A ETA B TALDEAK)

1. JARDUERA. HASIERAKO ELKARTZEA.

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleei saioan egingo denaren inguruko informazioa partekatu.

Materiala: ez da behar.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: gaurko saioan egingo denaren inguruko informazioa emango zaie ikasleei, honi esker saioan zehar egingo diren jarduera guztiak ezagutuko dituzte.

2. JARDUERA. UZTAILEN DANTZA.

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen arteko gertutasuna eta harremanak sendotzea.
- Ikasle guztiak parte hartzea eta eliminaziorik ez egotea.
- Musikaren erritmora mugimendua gauzatzea.

Materiala: uztaileak eta musika.

Denbora: 15 minutukoa.

Garapena: Zelaian zehar kolore desberdinetako uztaileak egongo dira. Hasieran musika entzungo dute eta musikaren erritmora mugituko dira ikasleak. Baina, bat-batean musika geldituko da eta ikasleek ahalik eta azkarren uztaile batean sartuko dira. Ez da inor eliminatuko, baina jolasean aurrera egin ahala uztaile kopurua txikiagoa izango da eta azkenean ikasle guztiak hiru uztailetan sartzea lortu behar dute. Helburua lortuz gero guztion artean txalotuko dugu.

3. JARDUERA. SUGEAREN JOLASA

Taldekatzea: 7-8 ikasleko taldeak

Helburua:

- Ikasleek kooperazioan jardunez ikastea.
- Ikasleen arteko harremanak eta konfiantza bermatzea.
- Ikasleen arlo kognitiboa, soziala, fisikoa eta emozionala lantzea.

Materiala: Sokak

Denbora: 15 minutu.

Garapena: ikasle talde bakoitzak lerro bat osatu behar dute, bakoitzak soka utziz. Honen ostean, zelaitik mugitzen ibiliko dira eta bat-batean sugea hitza esango du irakasleak. Beraz, sugea entzuterakoan ikasleak haien artean korapilo bat sortuko dute eta ondoren korapilo hori desegiten saiatu behar dira.

4. JARDUERA. PUXIKEN ETA KONTXONETEN JOLASA

Taldekatzea: 6-7 ikasleko taldeak

Helburua:

- Ikasleek kooperazioan jardunez ikastea.
- Ikasle guztiak parte hartzea eta elkar errespetatzea.
- Ikasleen arlo kognitiboa, soziala, fisikoa eta emozionala lantzea.

Materiala: Puxikak eta koltxonetak

Denbora: 15 minutu.

Garapena: ikasleek taldeka banatuko dira eta irakaslearen esanetan erronka desberdinei aurre egin beharko diete, eskura dituzte bi materialak erabiliz. Hona hemen ariketa hau aurrera eramateko adibide batzuk.

- Koltxoneta lurretik altxatu behar duzue eskuak erabili gabe.

- Koltxoneta lurretik altxatu baina goian dagoen puxika ezin da erori.
- Koltxoneta buruarekin garraiatu eta goian dagoen puxika ezin da erori.

5. JARDUERA. EBALUAZIOA ELKARREKIN.

Taldekatzea: Talde osoa elkarrekin arituko da.

Helburua:

- Ikasleen egindako jolasak ebaluatzea.
- Irakasleak ikasleak ebaluatzea ikastetxeko betebeharrak kontuan hartuz.

Materiala: saioaren ebaluazio txostena eta zigilua.

Denbora: 5 minutukoa.

Garapena: hasteko, ikasleek irakasleari feedbacka emango diote, hau da, irakasleak proposatutako jolasak baloratuko dituzte. Horretarako irakasleak hainbat galdera botako dizkie ikasleei:

- Nola sentitu zarete saioan zehar?
- Zer izan da gehien gustatu zaizuen? Eta gutxien?
- Zer aldatuko zenukete?
- Uste duzue modu parte hartzaile eta kooperatibo batean lan egin duzuela?

Honen ostean, ikasleek saioa orokorrean baloratuko dute, horretarako semaforo bat egongo da eta ikasleek nola sentitu direnaren arabera kolore gorria, laranja edo berdea jarriko dute. Bukatzeko, klasera iritsi aurretik ikastetxeko arauak errespetatu dituzten ikasleei gometsa jarriko zaie, tutoreek haien jarreraren berri izateko.

Jakinda azkenengo saioa dela, jolas kooperatiboen eta inklusibitatearen aldeko jarrerak bermatzeko azalpen txiki bat emango diegu ikasleei, etorkizunean lankidetzan eta modu inklusibo batean jarduteko.

II. Eranskina. KRONOGRAMA. EKINTZEN EGUTEGIA

| SAIO Z ^o | DATA | ORDUA | JARDUERAK |
|---------------------|------------|-------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. SAIOA | 2020/02/03 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea 2. Uztailen dantza. 3. Puxiken garraioa 5. Uztailaren bidaia. 6. Ebaluazioa elkarrekin. |
| 2. SAIOA | 2020/02/04 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea. 2. Baloia airetik, baina gure izena aurretik! 3. Orientazioan adituak. 5. Zuzendaria. 6. Ebaluazioa elkarrekin. |
| 3. SAIOA | 2020/02/10 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea 2. Uztailen dantza. 3. Puxiken garraioa 5. Uztailaren bidaia. 6. Ebaluazioa elkarrekin. |
| 4. SAIOA | 2020/02/11 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea. 2. Baloia airetik, baina gure izena aurretik! 3. Orientazioan adituak. 5. Zuzendaria. 6. Ebaluazioa elkarrekin. |
| 5. SAIOA | 2020/02/17 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea 2. Ibaia zeharkatu 3. Orientazioan adituak. 4. Bankuan ordenatu 5. Ebaluazioa elkarrekin. |

| | | | |
|----------|------------|-------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 6. SAIOA | 2020/02/18 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea 2. Uztailen dantza 3. Sugearen jolasa. 4. Puxiken eta koltxoneten garraioa 5. Ebaluazioa elkarrekin |
| 7. SAIOA | 2020/02/24 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea 2. Ibaia zeharkatu 3. Orientazioan adituak. 4. Bankuan ordenatu 5. Ebaluazioa elkarrekin. |
| 8. SAIOA | 2020/02/25 | 13:55-14:55 | 1. Hasierako elkartzea 2. Uztailen dantza 3. Sugearen jolasa. 4. Puxiken eta koltxoneten garraioa 5. Ebaluazioa elkarrekin |

III. Eranskina. IKASTETXEAREN EBALUAZIOA

Noiz erantzun da galdetegia

30/04/2020 18:50:36

Jasotako ikaslea(k)

Ianire Makinai, Jorge de la Serna eta Carmen Calvar.

Irakaslegaiak lortu du... [...teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea?]

NAHIKO ados

Irakaslegaiak lortu du... [...irakaskuntza eta ikaskuntzarekin lotutako arazoak konpontzea?]

NAHIKO ados

Irakaslegaiak lortu du... [...ezagutza berria sortzea?]

GUZTIZ ados

Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...) [Zuk ikusi eta entzundakoaren arabera, burututako esku-hartzea arrakastatsua izan da?

NAHIKO ados

Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...) [Burututako esku-hartzea egokia eta eraginkorra izan da zerbitzua jaso dutenentzat (ikastetxeko ikasleentzat, erakundeko erabiltzaileentzat, elkarteko bazkideentzat...)]

NAHIKO ados

Zerbitzua jaso dutenak (ikastetxeko ikasleak, erakundeko erabiltzaileak, elkarteko bazkideak...) [Iruditzen zaizu horrelako ekimenekin parte hartzen dutenek (ikastetxeko ikasleek, erakundeko erabiltzaileek, elkarteko bazkideek...) euskararen gaitasuna eta erabilera hobetzen dutela?]

GUZTIZ ados

Eskolatzeko-prozesuak hobetu [Hobekuntza/berrikuntza proiektuak baliagarriak dira irakaslegaientzat eskolan garatu beharko dituzten gaitasunak hobetzeko?]

GUZTIZ ados

Eskolatzeko-prozesuak hobetu [Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaientzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoaren aurrean autonomia erakusteko?]

GUZTIZ ados

Eskolatzeko-prozesuak hobetu [Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaientzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoaren aurrean hausnarketa egiteko eta argudiatzeko?]

GUZTIZ ados

Eskolatzeko prozesuak hobetu [Horrelako ekimenak baliagarriak dira irakaslegaiarentzat hezkuntza alorreko erabakietan eta arazoaren aurrean iritzi akademiko eta profesionalak emateko?]

GUZTIZ ados

Eskolatzeko prozesuak hobetu [Uste duzu irakaslegaien profil profesionalerako onuragarriak direla horrelako ekimenak?]

GUZTIZ ados

Eskolatzeko prozesuak hobetu [Ikastetxerako/erakunderako/elkarterako... onuragarria izan da horrelako ekimen batean parte hartzea?]

GUZTIZ ados

Eskolatzeko prozesuak hobetu [Gustatuko litzazuke hurrengo urtean horrelako zerbait egitea?]

GUZTIZ ados

Hezkuntza Fakultateko zerbitzua jaso behar zenutela jakin zenuenenean, zer-nolako inpresioa hartu zenion gaiari? Eta ondoren, espero zenuen bezala izan da?

Hasierako inpresioa ona iruditu zitzaigun eta bukatu ondoren, ez gara damutu, zeren emaitza onuragarria izan da.

Aberasgarria izan da horrelako ekimen edo proiektu batean parte hartzea? Zergatik? Zer-nolako abantailak eta desabantailak ditu horrelako esperientzia batek?

Zuek proposatutako ekimen hau oso aberasgarria izan da, arlo gehienetan. Gure ikastolako ikasleak ikas komunitate batean sartuta daude eta oso ohituta daude horrelako dinamika hauetan sartzen, ekintza desberdinak ikasten, agente desberdinekin egoten... Horregatik zuek ekarritako ekimena oso ondo etorri zaigu.

Nola hobetu daiteke prozesu hau?


Motza gelditu zaigu. Jarduerak edo ekintzak luzeagoak izan beharko lukete.

Amaitzeko, oro har, nola baloratuko zenuke esperientzia? Adjektibo pare bat eman.

Aberasgarria eta beharrezkoa.

IV. Eranskina. IKASLEEN EBALUAZIOAK

4.B. MAILA



Aupa Jorge eta Carmen

~~Son~~ Adama y m lo ~~ha~~ pasado muy bien.

~~I~~ love gimnasia.

Oso ondo portatu zarete nirekin.

Arriba gimnasia.

~~Me~~ llamo Jose.

Oso dibertigarria izan da.

Oso ondo pasatu dut.

Egin diot kasu maisuari.

Ondo pasa dut baina ~~azerre~~ egon naiz.

Ondo pasatu dut.

Errespetatu dut eta nik eta Jorge gara lagunak.

Oso ondo pasatu naiz eta ere bai ondo pasatu naiz Victoriarekin.

*Gainerakoetan ez dago testurik edo marrazkiak dira.


Gaizki pasatu dut.

Pixka bat pasatu naiz gaizki.

~~Mas~~ o ~~menos~~ porus ~~me~~ estaba molestando.

Ez dut ondo pasatu

3.B. MAILA



Carmen eta Jorge oso onak dira biak.

Oso ondo.

Gustatzen zait oso kirola: sois muy buenos profesoras.

Oso ondo oso ondo.

Oso ondo pasatu dut.

Oso ondo.

Gustatzen zait. Agur.

Oso ondo. Oso ondo pasatu dut eta errespetatu dut.

Jorge eta Carmen oso onak dira.

Oso ondo pasatu dut.

Oso ondo portatu naiz.

Oso ondo pasatu dut eta Jorge eta Carmenekin super ondo pasatu dut.

Lagunekin jolastu dut.

***Gainerakoetan ez dago testurik edo marrazkiak dira.**

Pixka bat pasatu naiz gaizki.


Azerretu naiz orregatik ez dut oso ondo pasatu.

Ondo pasatu dut baina ____ eta ____ bastertu didate.

Kili-kolo pasatu dut.

***Gorriak ez dago.**

3.A. MAILA



Super ondo eta Carmen oso polita da.

Alain oso dibertigarria da.

Hiper ondo pasatu dut.

Oso ondo pasatu dut.

Oso ondo pasa dudalako.

Oso pozik pasatu naiz.

Carmen oso guapa da.

Oso pozik nago.

Bien.

Oso ondo.

Oso pozik noa nire etxera. Gustatzen zait asko.

Ondo pasatu

Jolastu lagunekin

*Gainerakoetan ez dago testurik edo marrazkiak dira.


Pasatu dut kili-kolo zergatik jolasa gustatu zait baina Tzajma min egin dit.

Jorge eta Carmen oso onak dira.

Disfrutatu dut baina ez asko.

*Gorririk ez dago.

4.A. MAILA



Kaixo Aissa naiz gaur oso ondo pasa dut zuei esker agur oso dibertigarria da.

Oso ondo pasa dut

Bien me ha gustado Pasdata: Jordan

Oso ondo pasa dut. Eskerrik asko etortzeagatik.

Oso ondo disfrutatu dut eta ona izan naiz. Ere jolastu dut supero ondo.

Oso ondo pasatu dut.

Oso ondo baina bat ez zait gustatu jolasa.

1. saioa baino hobeto. Eskerrik asko

Oso ondo pasatu naiz.

Oso ondo pasatu dut.

Ni supero ondo pasa naiz

Oso ondo pasatu dut! Et zuk?

Oso ondo pasatu dut agur.

Ez haserretu asko (Ez naiz asko haserretu)

Ondo pasa dut. Eskerrik asko, agur! Kaixo Lisa naiz eta zu mmm Jorge eta Carmen ez?

*Gainerakoetan ez dago testurik.

~~Este juego no me ha gustado.~~

Kili-kolo

Pasa dut ondo baina triste pixka bat jarri naiz.

Agur

La profe no es muy buena,

Para Cristian multa.